

ZERAIN



urtekaria
2006

Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza


hezkuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, **Zientziaren kutxaGunea**.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiozu munduari beste begirada batez.

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dohainik. Erraz iristen da Museora.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Itxita egongo da astelehenetan (abuztuaren izan ezik) eta egun hauetan: urtarilaren 1ean, urtarilaren 6an, urtarilaren 20an eta abenduaren 25ean.

Goizez bakarrik egongo da zabalik abenduaren 24an eta abenduaren 31n.

Kaixo irakurle!

Abuztuarekin batera Andramari eta San Roke jaiak heldu dira Zeraina, eta hauekin batera urtekariaren ale berri bat kaleratu dugu.

Urtean zeharreko ekintza, aipagarri, elkarrizketa, bitxikeri, etabarrekin batera XaguArtea, hileroko aldizkari berriari, orri berezi batzuk eskaini dizkiogu, urtekari honetan, merezi duela pentsatzen dugulako.

Beti bezala gure eskerrik beroenak urtekari hau egiteko beren lantxoa eta lan potoloagoa egin dituztenei eta mila esker baita, diruz lagundu dutenei.

Ale hau ere zure gustukoa izango delakoan eskerrik asko zuri ere, irakurle, eta datorren urterarte.



Artikulua
Orrialdea

Sarrera.....	3
Elkarrizketa.....	6
Ekintzak.....	14
Berrikuntzak.....	20
Aipagarriak.....	22
Agenda21.....	24
Aratz-Aizkorri parke naturala.....	26
XaguArtea.....	28
Izana izen eske.....	34
Pelleta.....	36
Bertsoak.....	38
Gaztetako ibilerak.....	39
Mina inguruko aldaketak.....	40
Bizirik dagoen elkartrukea.....	41
Paisajea eta jendea.....	44
On Juan Goikoetxea.....	45
Turismoa Zerainen.....	46
Aldabe eta Aizkorpe bailara.....	48
Zerainen historia.....	49
Gazteak.....	50
Haurren txokoa.....	52

Egilea: Oa Kultur Elkarte

Azala: Joxemari Telleria

Diseinua eta maketazioa: Ion Muñoa

Argazkiak: Udaleko artxiboa, Herri-eskola, Otatza, Larraondo,

Laguntzaileak: Aitziber Makazaga, Kontxi Errasti, Andoitz

Telleria, Mari Flor, Mariajexux eta Elena Mendizabal

Inprimategia: Antza Lasarte-Oria

Zerainen, 2006eko abuztuak 13

«Gauetako isiltasuna, bake-giroa, lagunarte ederra, mendiko irteerak eta bista zoragarriak dira Zeraindik gehien gustatzen zaizkidanak»



MIKEL ZALBIDE

Ion Muñoa

Ez dago hitz askoren beharrik Mikel Zalbide Zerainen aurkezteko. Asteburuetan edo oporretan, gure artean izaten dugu: lagunartean solasean, nahiz mendi buelta ematen. Jaiotzez donostiarra den arren, aspaldidanik da «erdi-zeraindar»; eta zeraindar oso herriaren alde lan egin behar denean. Eta berriki Euskaltzain Oso ere egin dutenez, aukera paregabea eduki dugu Mikel elkarrizketatzeko. Eta bide batez, gure kolaboratzaile fina ere badenez, zoriontzeko ere hauxe aukera: ZORIONAK Mikel!

Gazte-gaztetatik zabiltza
euskalgintzan. Nola hasi zinen?

Ustez uste gabeak. Gauza horiek ez dira egun batean, serio-serio jarrita, erabakitzen. Ibilian-ibilian, ia oharkabeak, norke geure bidea egiten dugu. Eta halako batean, atzera begira jarrita, arrasto jakinean sartuta gaudela konturatzen gara. Arrasto hori ez da aldatu ezina, baina urteetan aurrera egin ahala gero eta zeure lanean sartuago sentitzen zara, eta une batetik aurrera han saiatsu nahi izaten duzu, batera edo bestera, dezakezuntzua emanaz.

Elhuyar-en sortzaileetako bat zara.

Bai: lauzpabost lagunen artean sortu genuen Elhuyar aldizkari teknikoak, une batean, eta lagun gehiago hurbildu zitzaizkigun handik berehala. Guztien artean zabaldu egin genuen lan-esparrua, eta gero profesionalizatzeko aldera jo zuen elkarteak. Ezinbestekoa zen hori, bizirik aterako bazen. Enpresa handia da gaur egun. Handia eta, euskalgintzaren esparruan, garrantzitsua.

«Euskararen behar nagusia euskaldunok euskaldunokin hitz egiteko guneak, harreman-sareak, aukerak eta beharrak indartzea da»

Mikel Bruselan konferentzi batean


1976an hasi zinen Euskaltzaindiarekin kolaboratzen.

Bai, hala da: Carlos Santamariarekin eta Joxe Migel Zumalabe (aita)rekin batera ari izan ginen, Jesus Mari Goñi eta biok, eskoletarako matematika-hiztegia osatzen laguntzen. Asko ikasi genuen maisu haiengandik: euskaltzaletasun sendoa batetik, eta gizalegezko jardura bestetik. **1978tik 1981era arte, UZEIn aritu zinen.**

Halaxe da. Unibertsitate Zerbitzueterako Ikastegi hori izan zen, soldadutza bukatu eta handik gutxira, nire benetako lehen lantokia. Hots, hor hasi nintzen hileroko soldata irabazten. Joseba Intxausti segurarra genuen zuzendari, eta espezialista ohargarri inguratuak geunden ezker-eskuin. Eztabaidarik ez zen tartean falta izan, egiten genuen lana ez baitzen zenbaiten ustez egokia. Ez dut esango inolako

arrazoirik ez zutenik, hori ziotenek. Errazago ikusten dira norberaren hutsak, eta lasaiago onartzen, denboraren perspektiban. Mende-laurdena pasa ondoan ez dut uste ordea, zinez diot hori, hain lan okerra egin genuenik. Lexikografia teknikoaz aparte, lexikologia ere sendo samar lantzen saiatsu ginen bertan. Ez dut uste orduko zenbait lan, orain ere, inoren lotsagarri litzatekeenik. Hiztegi tekniko haiek, dudarik gabe, eskola eta unibertsitate mundurako lagungarri gertatu dira. Saio hura gabe nekez uler liteke geroztik etorri den lanketa-saio jasoa. Bestalde, maileguzko hitzen idazkera kontuak bultzada sendoa izan zuen UZEIn, eta hitz-elkarteen idazkeran eta osaeran egindako ekarpenak ere hor daude, inork berraztertu nahi balitu.

1981az geroztik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuaren



**GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN *ZERAIN DEZAGUN*
FUNDAZIOARI**

buru zara. Zertan datza lan hori?

Hori da nire ogibidea, azken hogeita bost urtean. Eskoletan euskarak aurrera egingo bazuen, gauza asko falta zen: euskaraz dakiten (eta beren gaiak euskaraz irakasteko gai diren) irakasleak behar ziren, hizkuntzazko gaitasun-agirien azterketak antolatu, euskarazko testu-liburuak eta bestelako ikasmaterialak sortu edo sortzen lagundu, gelan eta gelatik kanpora euskaraz egiten laguntzako bideak eratu, ele biko irakastereduak ezarri eta garatu,...Horietan guztietan, eta beste zenbaitetan, saiatu ohi gara gure Zerbitzu horretan. Dozena bat lagunetik gora ari gara Lakuan, Sailaren egoitza nagusian, eta ondotxo gehiago dira hiru hiriburuetan, ordezkartzetan eta irakastegietan, Berritzeguneetan eta Euskal Girotze Barnetegietan antzeko lanetan ari direnak. Ekintza horien koordinazio teknikoa da, batez ere, ordu gehien eramaten diguna. Gizajendearen prestaera profesionalean eta hizkuntza-plangintzaren alorreko ikerketan lanetan ere saiatzen gara,



dezakegun neurri mugatuan, zertxobait egiten. Baita atzerriko adituekin eta han-hemengo ikerguneekin ere lanbidezko harremanak eratzen.

EGA agiriaren bultzatzaileetako bat ere bazara.

Euskaltzaindiak, 70eko hamarkadan, "D titulua" sortu zuen. Jende gazte askotxok (neu ere tarteko naizela) han izan genuen euskara idatziarekiko lehen azterketa formala. Gero,

1981ean, Autonomia eratu eta handik berehala, bertako Hezkuntza Sailera eskualdatu zen azterketa horien antolamendua. Hori dela-eta, 1982az geroztik Euskara Zerbitzutik daramagu EGA azterketen jestio teknikoa.

Apirilaren amaieraz geroztik euskaltzain oso ere bazara.

Hala da. Pozik hartu dut izendapena, Patxi Altunaren aulkia betetzekoa, eta itxaropentsu nago. Saiatuko naiz, dezakedan neurritxoan, akademiaren helburuei erantzuten.

Dena den, 1983az geroztik zara euskaltzain urgazle. Zein da desberdintasuna?

Antzeko lanetan jardun liteke bietan, akademiaren Batzorde teknikoetan aritzerakoan: gramatika lanetan, hiztegi kontuetan, onomastika gaietan, literatura alorrean, jagon sailean eta abar. Hileroko bileretara, aldiz, euskaltzain osoak bakarrik joan ohi dira. Erantzukizuna ere, erabakietan asmatzen denean edota huts egiten denean, 24ona da hortaz.



**ANAIAK
GARAJEA**

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa // Tfnoa.: 943 80 11 32 // IDIAZABAL

Euskaltzain oso zarenez geroztik zertan aldatu da zure bizitza? Aldatu baldin bada?

Aldaketa hadi-handirik ez du izan gure bizimoduak. Saiatzen gara emaztea eta biok, besteak beste, larunbat goizeko mendi-bueltari eusten. Eta hala izan dadila gero ere. Zerbait nabarmentzekotan, aldaketa dela-eta, bi gauza esango nituzke: batetik, lanez lehen ondo samar hornitua banengoen, orain ez zaidala lan-zama hori arindu. Bestetik, lehen baino jendaurreanago ageri naizela orain, ezinbestean. Ez da bereziki maite dudan gauza, baina konturatzen naiz zail dela jendaurreko irudi horri ihes egitea.

Zer esanahi eduki zu zuretzat euskaltzain oso izendatzeak?

Lehen zerbait esan dizut horretaz: esker onez jasotzen den aitormena da, batetik, izendapen hori. Orain arte zainduago neukan bizitza pribatua zertxobait estutzea eta ahultzea dakar horrek, bestetik. Bizitzako beste hainbat joan-etorritan bezala, gazi-gezak elkarrekin etortzen dira horrelakoetan.

Nolakoa da Euskaltzaindia barrutik?

Ez da erraza, galdera horri bi hitzetan erantzutea. Erakundearen irudia Bilboko bere etxea den neurrian, Euskaltzaindia egoitza dotorea duen instituzio ofiziala dela esan dezakegu. Mamiari dagokionez, berriz, euskararen esparruan hainbat pauso emandako emakumez eta gizasemez osaturiko gizataldea dela esan liteke. Euskaltzainez gainera, bertako lan-talde profesionala ere oso kontuan hartu behar da. Ez gehiegi harritu, ordea, era bateko edo besteko dotore itxurako hitzekin. Zu eta ni bezalako gizakiez osaturiko erakunde ofiziala da Euskaltzaindia. Aski eginkizun jakinak dituen, hori bai: aldioro bere zeregin horien



Zeraingo kongresu txikia 1999an

esparruaz eta lehentasunez gogoeta egiten du Euskaltzaindiak, eta hizkuntzaren unean uneko beharrezane

«Euskaltzaindia zer den? Euskararen esparruan hainbat pauso emandako emakumez eta gizasemez osaturiko gizataldea dela esan liteke.»

erantzun egokiak ematen saiatzen da.

Zein da euskaltzain oso baten eginkizuna?

Batetik, hileroko bileran parte hartu eta bertako erabakizunetan bere iritzia ematea. Bestetik, dezakeen neurrian, bertako batzorde teknikoetan lanean jardutea. Azkenik, hala dagokionean, Akademiaren ordezkotza-lanetan parte hartzea. **Zeintzuk dira euskararen behar nagusiak gaur egun?**

Euskaldunok euskaldunokin hitz egiteko guneak, harreman-sareak, aukerak eta beharrak indartzea. Batez ere jardungune arruntetan (etxean eta kalean, auzoan eta lantokian, aisialdian eta

lagunartean,..) ari da euskara, mendeetako ibilera nekoso baten buruan, ahultzen eta indargabetzen. Jende askok besterik uste badu ere, aje hori ezin du eskolak, osorik eta bere kabuz, erremediatu. Behar-beharrezkoa da eskola, baina bestelako perspektiba zabal batetik heldu beharra dago gaiari.

Bistan da, aldiz, beste zenbait esparrutan (goi-girokoagoetan, funtzio formalagoetan, idatzizko jardunean,..) aurrera egin dela. Batean egiten den aurrerapenak laguntza eskasa ekartzen dio, ordea, beste alorrean (oinarrizko bizi-esparru arruntetan, eguneroko bizi-poz eta maitasun-gorrotoren esparru barrenkoi-intimoetan) antzematen den galerari. Hori da egungo dilema, gutxitan aurrez aurre aztertzen duguna.

Bizi guztia euskalgintzan eta euskararekin lanean, baina ikasketaz Industria Ingeniaria zara. Ikasketez nahastu al zinen?

Egia diozu. Horrek ere badu bere esplikazioa. Batxilerra egin ondoan, ikasketekin aurrera egiteko aukera eskaini zidaten gurasoek. Garai hartan ez zen gaur bezain erraza, etxean aukera hori izatea. Karrera Donostian egitea pentsatu nuen, eta aukera ez zen handia. Ez, inola ere, orain bezalakoa. Lauzpabost karrera

zeuden aukeran, eta ingeniariari heldu nion. Ikasten hasi eta handik gutxira, urtebetera edo bira, ikasle-lagunei euskara-klaseak emango al nizkien galdetu zidaten bertan. Bai goizean, eta bai bazkalondoan, ordu erdi lehenago joaten ginen unibertsitatera, euskara-klaseetara. Gogoan dut Patxi Altunaren metodoa (Euskera hire laguna) genuela testu-liburu bakar. Horrela hasi nintzen euskara kontuekin, eta poliki-poliki zabalduz joan zen langintza hori. Hizkuntza teknikoarekiko kontaktua etorri zen gero, eta Elhuyar sortzea hurrena. Horrela izan ziren kontuak.

Baina euskaraz gain, gaztetatik duzun beste zaletasun bat espeleologia da. Aranzadin ere ibili zinen ezta?

Ez zabilta oker. Bide batez, nondik duzu berri hori? Egia da 17 urterekin espeleologian hasi nintzela, eta horretan jardun nuela bost bat urtez. Bai Hernio ingurua, bai Aizkorriko-Urbia eta bai, bereziki, Aralar sakon samar miratutakoak gara garai hartan. Ordu askotxo pasatakoa naiz, egun osoak ere bai inoiz, lurpean. Topografia izan ohi zen, lan

horretan, nire espezializazio nagusia. Punta-puntako bide-urratzailea ez nintzen. Bai, aldiz, talde-lanean jardutekoa. Karburoari ordu luzez pizturik eustea ere ez zen nire abildaderik handiena. Onik atera ginen halere, ia beti, gure lan horretatik. Ustekabe latz bakarra izan nuen nire espeleologo garaian: Tolosako Felix Ruiz de Arkauteren heriotza, Auñamendi inguruko San Martin formazio karstikoan. Geuk ekarri genuen gorpua etxe aldera, harik eta anbulantzia haren jabe egin zen arte.

Euskaraz eta gaztelaniaz gain, ingelesa eta alemana ere menderatzen dituzu. Beharrezko al da gaur egun, euskararekin lan egiteko beste hizkuntzak ere ezagutzea?

Ezinbestekoa ez da hizkuntza asko ezagutze hori. Ez, behintzat, gauza guzti-guztietarako. Bertsolari batek, esate baterako, barrura begira lan egin behar du batez ere, eta euskal munduan murgil egin behar du lehenik eta behin. Horretarako, euskararen eta euskal tradizio soziokultural aberatsaren jabe izatea da bere beharrian nagusia. Beste hizkuntzak jakiteak ez du horretarako kalte egiten, baina

«Batez beste osasun onean dago euskara Zerainen, beste herrietako egoerarekin konparatzen bada»

«Erdaldunen edo erdal elebidunen etorrera hori, espero izatekoa zenez, erdarazko jarduna zabaltzen ari da herrian»

beharrian nagusia etxe barrukoa da. Beste zenbait zereginetarako ordea, hizkuntzaren gizarte-dimentsioa arakatzeko adibidez, ezinbestekoa da beste zenbait hizkuntza, ingelesa buru delarik, jakitea. XXI. mendean, ingelesez ezertxo ere ez jakitea zaila izango da, oso hiztun-herri handietako jendaki batzuentzat izan ezik. Hori ez da kapritxo edo gustu kontua, halabeharrezko eginbidea

Arantzazurako erromesaldian
Andraitzko iturrian



baizik.

Euskaigintzan daramatzazun urte hauetan guztietan, hitzaldi asko prestatu, artikulua asko idatzi eta liburu askotan parte hartu duzu. Zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Zaila da, oso, galdera horri xuxen erantzutea. Era askotako gaiak lantzea suertatu zait hogeita hamar urteotan, eta ez nekike ondo batzuek eta besteak nola konparatu. Gauza bat esan dezaket, huts egiteko beldur handirik gabe: hizkuntzaren barrunbeak, bere gibel-erriak, aztertzen jardundakoa naiz batez ere, lehenengo urteetan: maileguzko hitzen idazkera eta ebakera, hitz elkartuen osaera eta idazkera, eta abar. Urteen joanean, aldiz, interesa beste esparruetara zabaldu edo lerratu zait: ele biko irakaskuntzaren ingurumen-baldintzetara batetik, eta hizkuntzaren dimentsio sozialera bestetik.

Europar zehar ere dezente ibili zara beste hizkuntza minorizatu batzuetako esperientziak ezagutzen. Euskararen normalizaziorako bidean,

beharrezkoak al dira kanpoko esperientziak?

Oso. Ez gara jabetzen, ez behintzat behar den neurrian, gure egoera ez dela hain arraroa. Munduan sei mila hizkuntza inguru baldin badira, eta berrehun bat estatu baldin badaude ONUn, zerbait esan nahi du horrek. Europar bertan, askotxo dira hiztun-herri txikiak: buruz ari naiz baina berrogeita hamarretik gora badirela esango nuke. Hiztun-herri txiki horietako asko eta asko gu bezain ahul daude, edota are ahulago. Denetatik dago zer ikasia. Baita gu baino ondotoz ahulago daudenetatik ere. Oker gabilitza, ikasbide bakarra osasun oneko hiztun-herrietan bilatu nahi

«Batez beste osasun onean dago euskara Zerainen, beste herrietako egoerarekin konparatzen bada»




badugu. Gaixo larriak zainduz eta (askotan huts eginez) heriotzatik ateratzen saiatuz ikasi dute medikuek, mundua mundu denetik, osasuna zaintzen eta hobetzen.

Zenbat urte daramatzazu Zeraina etortzen?

Lehenengo aldiz, hilabeterako-edo, 1989an etorri ginela esango nuke. Gero, fijo-fijo, 1994tik hemen gaituzue aste-bukaera gehienetan eta opor-garaian. Uste baino azkarrago doaz urteak. Gazteenak izan ginen seinale.

Nolatan iritsi zineten Zeraina?

CALDAS HARGINDEGIA
Mota guztietako hargin lanak
ANTONIO CASTRO



Elizalde Etxea
Tel.:943800106 Mug.:652776353
20215 ZEGAMA

Amaginarreba bertan jaioa da eta, emaztearen gurasoak hemen bizi ez bada ere, bertan zuten kale-bizitza horietako bat, Gurea etxaldean. Hutsik zegoen etxea, eta guk leku falta genuen Donostian, liburuak gordetzeko batez ere. Hor plantatu genuen gure asteburuko egoitza, seme-alabak artean gaztetxo zirelarik, eta ez gara damutu. Hasieran leku bila etorri baginen, beste hainbat erosotasun ere eskaini digu Zerainek, harrezkero.

Urte hauetan Zerain aldatu dela ikusi al duzue?

Zertan?

Ez dago herririk Gipuzkoan, eta are Euskal herri osoan, hamar-hamabost urteotan gutxi-asko aldatu ez denik. Zerain ere ez da atzean gelditu. Asko aldatu da, eta aldaketa-bidean da orain ere. Etxegintza, batez ere aparteko etxetxo edo txalet-gintza, erantsi zaio azken hamar urteotan orain dela 30 urteko kale-etxeen eraikuntzari. Herrixka erdi-galdu izatetik, Gipuzkoako bide-sare nagusitik bost minutura egotera pasa da. Gas naturala eta internet herrira etorri dira bitarte honetan, eta herri arteko lotura-bideak nabarmen hobetu dira. Ez dakit konturatzen ere garen, aldaketa horren handiaz eta sakonaz. Jauzia are handiagoa izango da, Beasain-Durango ardatza eraberritzen denean. Aurrerantzean, arazo nagusia ez da izango nola modernizatu, modernizazioaren uholde gehiegizkoari nola eutsi baizik.

Nola ikusten duzu Goierri?

Indar betean, hainbat aldetatik. Urbanizazioan eta industria-berrikuntzan, kaleen garbitasunean eta kulturgintzan, onera egin du Goierrik azken hogeitaz urtean. Ekonomia aldetik, azaleko itxura erabat engainatzen ez bagaitu, izan du Goierrik orain baino une larriagorik. Kontua, gainera, ez da Goierrikoa bakarrik. Ez eta, hartaraz gero, Hego Euskal herrikoa ere. Europa inguruko garabi edo grua erdiak



«Gure hizkuntzaren egoera ez da hain arraroa. Munduan 6000 hizkuntza inguru baldin badira, eta 200 bat estatu baldin badaude ONUn, zerbait esan nahi du horrek. »

Espainian ari dira lanean, azken urteotan, eta horrek zerbait esan nahi du. Dirua mugitzen ari da hemen, bai kultura-gune dotoreak sortzeko edo eraberritzeko orduan eta bai saneamendu, kale-berritze eta auzogintza-obra zabalak abian jartzeko. Hurbilagoko beste maila batzuetan ere antzematen da goraldi hori: bidaia-agentziak eta sagardotegiak, soziedadeak eta kotxeen edo noranahiko ibilgailuen kontzesionarioak (batez ere erdi- eta goi-mailako autoenak) ondo konturatuak daude patrikan dirua dabilela franko. Norberarena edo maileguz hartua, baina dirua. Hona begira dago Europako hainbat jende, hemengo bizi-kalitateaz txunditua. Lehen gizagaixotzat hartzen gintuen

jendeak harriturik galdetzen dizu orain: "nondik ateratzen duzue dirua, martxa horri eusteko?"

Dena ez da hain arrosa-kolorekoa, jakina. Bistan da jeneralizazio sinplistegia dela goiko hori, eta guztiok dakigu batezbesteko joera nagusien azpian egoera larriak izan ohi direla ugari, Goierriin eta nonahi. Batezbesteko joera hor dago, ordea, eta aldaketa sakona da hori.

Arriskua, noski, badakigu zein den: bide onetik goazela uste izan eta, hori eta horrenbestez, gure gazteen belaunaldiak ere gora eta gora jarraitu ahal izango duela uste izatea. Hori ez dago, ordea, bat ere seguru. Sentitzen dut esatea, baina hori da nire ustea: beti gora egiten duen herririk ez da munduan jaio. Hori ere etorriko zaio buelta, lehenxeago edo beranduxeago. Ez dakit, egia esateko, horretaz jabetuak eta hartarako prestaturik gauden. Konturatzen al gara, esate baterako, seme-alabek bertan pisutxo bat erosi ahal izatea zein zaila bihurtzen ari den? Gu ezkondu ginenean ere gauzak ez ziren eroso-erosoak. Orain, ordea, lehen baino zailagoak direla esango nuke.

Eta Zerain?

Gainbehera etorri zen Zerain, joan den mendean. Ondo entenditua baldin badaukat, 600

bizilagunetik 200 ingurura. Orain 50 eta 65 urte artean dabilen zeraindar-jendeak lortu zuen, jakina denez, gainbehera horri alto ematea. Alto ematea bakarrik ez: baita herria zaharberritu eta etorkizunera begira jartzea ere. Egunen batean aitortu beharko zaio belaunaldi horri, orain dela 30 bat urte zezenari adarretatik heltzeko eta herria biziberritzeko izan zuen korajea. Ez zen erraza izango, une hartan, hain gutxiren artean halako lanbideetan sartzea.

Geroztik, gorago esan denez, aurrera egin da hainbat alorretan. Zerbitzugintzan, besteak beste: udaletxeaz eta elizaz gainera frontoia, bi taberna, sagardotegia, bi nekazalturismo, aterpe-etxea, eskola, guraso-elkarte, abesbatza, museoa eta mandioko denda antolatu eta bizirik eustea ez da berriketa, 250 laguneko herri txiki batentzat. Donostiako gure atarian bizi gara, hor nonbait, beste horrenbeste lagun: esaiezu, hori guztia antolatu behar dugula. Ausartzea ere!

Galdera sortzen da, jakina, kontu horiek aipatu orduko. Posible al du Zerainek, aurrerantzean, oraingo martxa horri eustea? Noiz arte? Oraingo, nik ikus dezakedan neurrian, 50 urtetik beherako gizataldeak zaharxeagoen enbidoari gogotik eutsi dio, eta gazte-jendea ere indarrean dator. Hortik aurrerakoa geroak esango du.

Egia al da Zerainen hainbeste famatzen den "auzolan-espirtua" badagoela?

«Saiatzen gara,
emaztea eta biok,
besteak beste,
larunbat goizeko
mendi bueltari
eusten. Eta hala
izan dadila gero ere»

Liztormendi aurrean familiarekin



Bai, badago. Bestela ez ziren egingo, egin diren gauzen erdiak. Egin direnak eta urtero-urtero egiten direnak. Hori du Zerainek, gaur-gaurkoz, bere aktiborik handienetakoa.

Nola ikusten duzu Zeraingo euskara?

Batez bestean, ondo. Osasun onean dago euskara Zerainen, beste herrietako egoerarekin konparatzen bada. Euskara da herrian, besterik esaten ez bada, hitzetik hortzera entzuten den lehen hizkuntza. Ahozko jardunari, gainera, idatzizkoa erantsi zaio azken aldian. Gazte-jendeak, bere aurrekoek ez bezala, hitz egiten ez ezik irakurtzen eta idazten ere badaki euskaraz. Ez dakit konturatzen garen, zenbaterainoko nobedade den herri oso batek, 30 urtetik beherako guztiek hor nonbait, euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ondo edo txukun samar jakitea.

Guztia ez da, ordea, aurrerabidea. Erdaldunak, edo erdaraz erosoago egiten dutenak, herriratzen ari dira gero eta sarriago: batzuek egun pasa, eta besteak finkoago. Erdaldunen edo erdal elebidunen etorrera hori, espero izatekoa zenez, erdarazko jarduna zabaltzen ari da herrian: tabernetan, soziedadean, kale-bizitzan eta abar. Gazteak eta gaztetxoak halere euskaraz entzuten ditut beren artean,

plazan eta plaza ondoan. Hori dugu, oraingo, osasun-seinalerik hoberena.

Azken hilabeteetan XaguArtean galtzen ari diren hitzei buruz idazten duzu. Zer moduzko lana jarri dizugu?

Lan polita, Elenak eta biok manorik mano aurrera daramaguna. Jendeak gure azalpentxoak gogoz jasotzen eta irakurtzen duen artean, eta astirik baldin badugu, saiatuko gara hasitako bideari eusten. Asko eskertuko genuke, dena den, jendeak bere oharrak bidaltzea.

Zer da Zeraindik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien-gehiena gauetako isiltasuna, bake-giroa, lagunarte ederra, mendiko irteerak eta bista zoragarriak. Gutxien-gutxiena, berriz, etxetik Zeraina eta Zeraindik etxera traperero baten moduan ibili beharra astero, batetik, eta internet-en konexio-falta, bestetik. Bi arazo horiek badute, ordea, erremedioa. Ea noiz iristen garen.

Hemendik hamar urtera ere Mikel Zerainen mendi buelta ematen, Urtekarian kolaboratzen eta lagun-artean tragoxka bat hartzen ikusiko al dugu?

Geroaz ezin esan liteke ezer asko, hori ez baitago gure esku. Baina gustatuko litzaidake, bai horixe!

ANDRAMARI JAIK

Urtero bezala Andramari jaiak giro ederrean ospatu genituen.

Bezperan haurrak puzgarrietan, eskaladan eta jokuetan gozatu zuten, arratsaldean bando, etxafuero eta kanpai bueltakoekin hasera eman ondoren txekorra janez eta sagardoa dastatuz jende ugari bildu zen goizalderarte.



Puzgarriak Andra Mari bezperan.

Andramari egunez urteroko ekintzez gain, nobedade pare bat izan ziren, arratsaldez herriko bi gazte talde elkarren aurka herri kirolean aritu ziren, bezperako sagardoa eta goizeko txakolinaren indarrak lagunduta saio ikusgarria eman zuten, aizkoran, tronzan, txingatan, koskol biltzen, karretila garraioan eta korrikan, jende ugari bildu zen eta animazio izugarria izan zen. Ondoren beterranoen dantza sueto txapelketa



Herri kirolean karretilekin ere egon zen zereginik.

izan zen, Andramari arratsalde ederra betez.

San Roke eguna urteroko ekintzez bete zen, oraingoan afaria frontoian egin behar izan zen, zalantza ugari izan ondoren, euri zaparrada batek hala beharturik.

KULTUR ASTEA

Irailaren 10etik 18ra ospatu zen kultur-astea. Larunbatean haurrentzat hainbat ekintza izan ondoren, gauean herriko plazan afaria egin zen bertsolari eta trikitilarekin. Igandean hirugarren adinekoen txanda izan zen, eguerdian Meza Nagusia eta ondoren bazkaria

bertsolari eta guzti.

Asteazkenean hainbat gai jorratuz hitzaldiak izan ziren.

XI. AZOKA EKOLOGIKOA

Jende ugari bildu zen urte bat gehiagoz ere XI. Azoka ekologikora. Salmenta postuak produktuz beteta eta kandela, ogi, pasta eta saski tailerrak arakastatsuek izan ziren, sagar muztioa nola egiten den ikusi eta dastatzen jende asko ibili zen, baita egur taila eta saskigintza ikusten ere. Arratsaldean iparraldeko Agnes dantza gidari zela plazan jendeak gozatu zuen, batzuek dantzak eta besteak begira.

TXONDORRA

Irailaren 18an, azoka ekologikoaren egun berean goizeko 11etan su eman zioten aurreko egunetan prestatuta zuten txondorrari. Basozabalgo Julian eta Aizpeerroto Joxen zaintzapean Kozmendiko Xabik antzinako langintza gogor hau landu zuten. Jauregi atzeko zelaian zegoen txondor honek bisitari ugari izan zuen piztuta egon zen hamar egunetan eta baita gau batzuetan ere. Astearte goizeko ordu txikitik hasi ziren ikatza ateratzen eta eguerdirako dena zakutan sartua zuten.

9 tona pago egurrekin egindako txondorretik tona 1 egur-ikatz atera zuten.



Helduen dantza txapelketara jende asko hurbildu zen.



Txondorraren keak Zerain sorgindu zuen irailean. Ikazkinen bizimodua gertuagotik ezagutzeko aukera egon zen.



Herriko gaztetxoek tailerrak egin zituzten azoka egunean.

GAZTAINA JATEA

Udazkenarekin batera etorri ohi da beste gauza batzuen artean gaztainak bildu eta jateko garaia. Basarte guraso elkarteak antolatuta urriaren 22an egin zen Zerainen gaztaina eta talo jatea, eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere jende ugari bildu zen eliz atarian, bertan erretako gaztainak eta haur eta gurasoek egindako taloak jatera. Kanpoko hotzari aurre egiteko barrua berotzea onena.

GABONAK

Abenduaren 24an urtero bezala etxez etxe eskean ibili ginen, eta urtero bezala, erantzuna ezin hobea izan zen. Etxe guztietan irripar batekin hartzeaz gain, dirutza ikaragarria eman zuten.

Bi talde ibili ginen eskean: Goizean nahiz arratsaldean, herritar dezentez osatutako taldetxoak ibili ginen Zerain dena pasa arte. Herri

eskolako haurrak, guraso eta irakasleekin goizez bakarrik ibili ziren. Herri kasko ingurunean aritu ziren etxeak alaitzen. Momentu batzuetan bi taldeok bat ere egin genuen eta elkarrekin kantatu genituen gabon kantak.

Diru asko bildu zuten bi taldeek eta ekintza ezberdinetako erabili dute urtean zehar.

TUTE ETA MUS TXAPELKETA

Liztormendi elkarteak antolatuta tute eta mus txapelketak ospatu ziren urtarrilaren 28an eta otsailaren 11an.

Aipatzekoa da bi lehiaketetan izan zen partehartze altua. Tuteko txapelketan 21 bikotek hartu zuen parte eta musekoan 23k. Beraz, partehartzeari dagokionez, azkeneko urteetan izan den jendetzarik handiena bildu zen eta hori oso pozgarria da Liztormendirentzat nahiz Zeraintzat.

Tuteko txapelketan segurarrak izan ziren nagusi; Julian Arrondok eta Pako Aristimuñok (Arrabiola) jantzi zuten txapela. Museko txapelketan berriz Luis Aizpeolea zeraindarrak eta Joxe Larrea zegamarrak jantzi zuten txapela.

SANTAESKEA

Ohitura zaharrari jarraituz, herritar



Gabon gaueko hotzari kantuekin egin behar aurre.



Zaharrak txapeldun gazteen aurka tutean.



Sari bikainak jaso zituzten museko garaileek ere.

talde bat ibili ginen kantuan eta eskean. Eta urtero bezala, harrera ezin hobeia egin ziguten etxe guztietan. Guztira 1558,67 euro bildu ziren, urtero ohi den bezala, garapen bidean dauden herrialde batera bidaliko da diru hori. Aurtengoan Afrikako Gineako Akonibe herrixkara bidaliko da euren beharretan laguntzeko.

ENDIKA ALUSTIZA MEMORIALA

Otsailaren 26an, igandea, Zeraingo bolatokian Endika Alustiza zenaren oroimenezko XIII. Bola-txapelketa jokatu zen

BARRETERAPIA

Apirilaren 2an barreterapia ikastaroa egin zen Maixunen. Tailerra "Escuela



OIHARTE

Nekazalturismoa eta erretegia

20214 ZERAIN
Maria Luisa Urrestarazu
Tel: 680 171 291

: La risa inteligente" taldekoek bideratu zuten. Ikastaro honetan parte hartu zuten 12 lagunek, hiru ordu eder pasa zituzten eta beraien hitzetan esperientzia errepikagarria izan zen.

GOIERRIKO ESKOLA TXIKIEN FESTA

Maiatzaren 7an, Zerainen ospatu zen Goierriko Eskola txikien festa. Lau herrik osatzen dute Goierriko eskola txikien sarea Zerain, Olaberri, Gabiria eta Itsasondo. Beste hiru herrietako ume, guraso eta irakasleak hurbildu ziren Zeraina. Eguraldi ederra lagun zela, Basarte guraso elkarteak antolatutako hainbat ekintza burutu ziren. Goizeko 11etan beste herrietako haur, guraso eta



Beti bezala harrera ona egin zieten eskean joandakoei.



Bolatea beti da protagonista Zerainen.



Santa Ageda bezperan jan-edana ere tope.

irakasleei harrera egin ondoren, batzuk asto karrotan herriari bisita egiten zieten bitartean, besteak elizatzean eskalada egiteko aukera izan zuten.

Denak elkarrekin frontoian bazkaldu zuten. Ondoren, elizan Errenteriako Landarbaso abesbatzan emanaldi bikaina izan zen. Agnes dantza gidariarekin dantza saio baten ondoren Zeraingo haurrek testigua Gabirikoei pasatu zieten.

Festari amaiera emateko eskola txikien mezu bat zazpi hizkuntzatan zeraman kartela aireratu zuten puzgarrien bitartez. Horrela, eskola txikiak bizirik daudela zabaldu nahi izan zuten lau haizeetara. Kartel hori jaso eta itzultzen duenarentzat afari bat egongo da. Auskalo Zeraingo



Nahiko algara izan zen barreterapian.



Goierriko eskola txikien eguneko hasiera ekitaldia plazan izan zen



Frontoian bazkaria. Bukatzeko globoak

aldarriaren oihartzuna noraino iritsiko den.

BOST HERRIEN ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Zerain, Segura, Mutiloa eta Idiazabalgo haur eta gaztetxoek artean jokatzen den "Bost herrien arteko pilota txapelketaren" bostgarren edizioko finala Zerainen jokatu zen ekainaren 11an. Bertan, kanporaketetan finalerako txartela lortu zuten pilotari gazteak aritu ziren nor baino nor benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubencil mailetan.

Zeraingo ordezkari bakarra izan zen finalean, Eneko Arzelusek kadete mailako finala jokatu zuen Zegamako Joseba Arakamaren aurka eta 18 eta 13 hartu zuen mendean.

SAN JOAN SUA

Euskal Herrian aspaldiko usadioa da San Joan bezperako gau magikoa modu berezian ospatzea. Urteko gaurik motzena omen denari behar bezalako hasiera emateko, Zerainen ere ospakizun berezia izan zen ekainaren 23an, ostirala, tradizioari jarraituz.

Iluntzeko 8:30etan, elizako kanpai bueltakoen doinuekin hasiera eman zitzaion. Herriko haur eta gaztetxoak dantza egin zuten suaren inguruan eta koruak abestu zuen ondoren. Amaitzeko mahaiaren bueltan elkartu ginen zeraindar denok, ez baitago jan-edanik gabeko tradizioirik.



Astoak eta karroak umeen gustuko ibilgailu bihurtu ziren.



Enekok malizia handia erakutsi zuen eskuin golpean.

MUTILOAKO SAGARDO DASTAKETARA JAITSIERA

Orain dela bi urte hasitako ohiturari jarraituz, aurten ere Mutiloako

sagardo probaketara jeitsiera egin zen. Ekainaren 30ean iluntzeko 7:30etan elkartu ginen herriko plazan eta txistularien doinuak lagun hartuta Mutiloara jeitsi ginen 60 bat lagun. Haur, gazte, heldu eta zaharxeago, denak elkarrekin festa giroan joan ginen.

TOBERA MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIA

Ekainaren 20an, Zeraingo kultur Etxean, Tobera musika eskolako Zeraingo ikasleak kurtso amaierako kontzertua eskaini zuten.

Mikel Oriak, Mikel Etxeberriak eta Josu Etxeberriak trikitixa jo zuten. Andoni Alustizak panderoa hauei laguntzeko eta Olatz Aranburu eta Ainhoa Arzelusek, akordeoiaren hauspoak astindu zituzten. Modu honetan, urtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten lagun, familiako eta gerturatu zen zeraindar denen aurrean.

BIELORRUSIKO DANTZARIAK

Uztailaren 24an Bielorrusiako Sohz dantza taldearen emanaldia izan zen Zeraingo frontoian. Ikuskizun polita eta koloretsua eskaini zuten, dantza alaiak eta jantzi benetan ederrak. Herritar ugari bildu zen emanaldia ikustera eta txalo ugari eskaini zuten, bati bat dantzarietara.

Berrogei lagun inguruk, osatzen dute talde hau, dantzari, musikari eta abar. Talde honek beren lurraldeko ohiturak eta kultura zabaltzeko nahi dituen munduan barrena, lau haizeetara.

Izaki Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntzarekin antolatutako Europako bira, eta bira horren barruan iritsi dira Zeraina.

BAITA ERE

Ekintza guzti hauez gain, orain arte bezala, joan den urte honetan ere hainbat ekintza egin dira. Horien guztien artetik honako hauek gogoan ditugu:

- * Ingeleseko eta euskarako kurtsoak egon dira
- * Adinduek gimnasia egin dute herriko pilotalekuan.
- * Gabonetan, Aste Santuan eta udako oporraldietan haurrentzat aisialdirako ekintzak egin dira. Ekintza hauek herriko gaztetxoek prestatuak izaten



San Joan bezperan sua, dantzak, kantua eta jan-edana nagusi



Mutiloara bide berritik jaitsi ginen aurretik.



Bielorrusiako dantzariak aparteko trebezia erakutsi zuten.

dira.

- * Irailaren 3 eta 4an Arantzazuko erromesaldia izan zen. eta azken urte

hauetan bezala, arrakastatsua.

- * Adinduen urteroko eskurtsioa uztailan Mutrikura egin zen.

Zerain eta Mutiloa lotzen dituen bidea

Foru Aldundiak egin duen errepide berriak 1,3 kilometro ditu eta milioi bat euro kosta da

Zerain eta Mutiloa lotzen dituen errepidea berria irekita dago guztientzat. Kilometro bat pasatzoko trazatua duen errepide berriak Mutiloa eta Zerain zuzenean lotzen ditu, bi herrien aspaldiko nahiari erantzunez.

Beraz, aurrera begira, bidea egiteak bi herrien arteko komunikazioa eta elkarlana handitzea espero dute zeraindarrek eta mutiloarrak.

Muriasek egin duen errepidea

Murias enpresak egin du Zerain eta Mutiloa lotzen dituen errepidea. 1,3 kilometro dituen trazatua egiteko sei hilabete eskas behar izan ditu konstrukturak. Urtarrilaren 30ean jarri zuten lanen hasiera sinbolizatuz lehen harria Aldun Nagusiak eta herrietako alkateek. Elurpean egin zuten harri-jartze hura. Eta, eguzki beroaren azpian, uztailearen 19an, inauguratu zuten orduan hasitako errepide berria.

Ohikoa ez den arren, errepidea jarritako epea baino lehenago amaitu du Murias enpresak. Abuztuaren amaiera arteko epea zuen bidea bukatzeko, baina uztailearen erdirako amaitu dute. Guztira milioi bat euro pasatzoko aurrekontua izan dute eta oso bide txukuna utzi dute.

Zerainen biribilgune bat egin dute. Handik Irukate baserriaren ondotik Oiarte alderaino doa errepidea. Oiarte nekazalturismoaren parean, buelta hartzen du eta Murgiaran gainetik



Antxaputxuko eraztunak beste itxura bat eman dio bidegurutzeari

Mutiloa alderaino doa. Ondoren, berriz ere biratu eta Mutiloako pilotaleku aldera doan errepidearekin bat egiten du. Guztira kilometro pasatzoko trazatua da eta aldaparik handiena %8 ingurukoa da. Errepideak bi karril dauzka eta izkinetan, bazterbideak ditu.

Errepide hau eginda, Mutiloa eta Zerainen aspaldiko ametsa errealitate bihurtu da. Makina bat saiakera eginak dira bi herriak elkarren artean errepide bat izateko. Izan ere, orain arte, 8 kilometro inguru zeuden bi herrien artean. Orain berriz, kilometro eta erdi baino gutxiagorekin elkartu dira, berez oso gertu dauden Mutiloa eta Zerain. Bi

herrietan, orokorrean gustura hartu da errepidea, herri txikiak aurrera ateratzeko elkarren beharra dutela bai baitakite.

Maixune ingurua

Maixune berritu eta bertan ume eta gaztetxoentzako lekua jarri zela ez da gauza berria. Iazko urtekarian ere aipatu genuen hori. Baina, horrez gain, Maixune inguruan egin dira beste zenbait berrikuntza ere.

Etxearen atearen alde banatan bi lorategitxo zeuden orain arte. Plaza aldera zegoen lorategitxoa kendu egin da eta aldapatxo bat egin da, ezinduentzako ere bidea eginez.

Bestalde, ate aurre guztian hodi bat pasa da euri-urentzat eta rejilla bat jarri diote gainean.

Berrikuntza hauekin, asko jantzi da Maixune eraberrituaren aurre aldea.

Sakristiko teilatua

Maixunetik oso gertu ere izan da beste berrikuntza bat aurreten. Sakristiako teilatua guztiz berritu dute. Orain, plazako frontoi txikiaren frontis gaineko teilatua berri-berria ikusten da.

Azken urteetan Elizako sakristian itokinak zeuden. Hainbat konponketa ahalegin egin arren, ez zen lortu euriari pasoa erabat ixterik. Horregatik, teknikoez ikusi ondoren, teilatua guztiz berritzea beharrezkoa zela ondorioztatu zen. Lehengo teila zaharrak altxa eta egur berriak sartu ondoren, dena teila berriekin estali zuten. Gaur egun itxura ederra du eta ez da euririk sartzen.

Teilatua berritzeko dirua Zeraingo kristau elkarteak jarri du neurri batean, eta beste zati bat Gipuzkoako Eliz Barrutitik heldu da. Modu horretan gastuari aurre egin ahal izan zaio.

Datozen urteetan beharrezkoa izango da Eliza guztiaren teilatua ere berritzea.



Maixune aurreko berrikuntzek txukundu egin dute plaza aldea.



Sakristiko teilatu berriak itoginak kentzeko balio izan du.



ETXAIDE ERAIKUNTZAK, S.A.

Araba Etorbidea, 5.blokea
Tel: 943 65 31 86

TOLOSA

JAIOTZAK

Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe

2005-2-17
2005-11-12



Eki eta Aizpea

**2005-2006 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO
HAURRAK**

Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe
Aimar Ormeño Agirre

URREZKO EZTEIAK



Telleriko Jose Alustiza eta Ines Etxaluze 1954ko azaroaren 6an Zeraingo elizan ezkondu ziren, 2004ko azaroan urrezko ezteiak ospatu zituzten.

**2005-2006 IKASTURTEKO HERRI ESKOLAKO
HAURRAK**

Oihane Lazkanoiturburu Alustiza
Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez de Egilaz Junkera
Izar Foroni Ruiz de Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez de Egilaz Junkera
Irenia Apaolaza Kintela
Adur Balerdi Aierbe
Haizea Foroni Ruiz de Larrinaga
Haitz Iturrioz Sodupe

HERIOTZAK

Jose Antonio Azpiazu Arregi	2005-1-5
Mari Carmen Arrondo Telleria	2005-4-20
Juan Antonio Apaolaza Goya	2005-6-16
Maria Agirre Arrieta	2005-8-8
Josefa Oria arzelus	2005-12-6



OTATZA SAGARDOTECIA
ZERAIN GIPUZKOA
TEL. 943 80 17 57

DONE JAKUE BIDEA

Kompostelako Santiagora doazen hainbat bideetako batek Zerain zeharkatzen du, Segurako Zerain portaletik sartzen da kaltetada zaharretik herriko plazaraino, eta hemendik Arrola aldetik Zegamara. 2005eko udazkenean Eusko Jaurlaritzak hainbat ikur jarri zituen Done Jakue bide hau eta bertan ikus daitezkeen interesguneak seinaleztatzeko.



SARIAK

Goiekik urtero egiten duen proiektu berritzaileen saria, 2006an Zeraingo Txirbil enpresari eman dio. Txirbil da Euskal Herrian peleta deritzon erregaia egiten duen enpresa bakarra.

Euskal Herriko Garapen agentzien arteko sariketan hirugarren sari bat ere lortu du Txirbilek.

MIKEL ZALBIDE EUSKALTZAIN OSO

Mikel Zalbide Euskaltzain Oso da joan den apirilaren 27az geroztik. Mikelek bizi guztian euskalgintzan egindako lanaren saria da izendapena.

HERRIKO LANETAKO POSTUA

Udaberrian Zeraingo Udalak lan anitzetako langile batentzat lanpostua atera zuen. Oposaketa hauetan 12 lagunen artean, bertan 2000. urtetik Zerainen lanean ari den Xabier Dorronsoro izan zen puntu gehien lortu zituena, beraz abenduaren 1az geroztik funtzionario izendatu dute.

ALKATE MAKILA

Nikolas Zurutuzak alkate makila berria egin du Zeraingo alkatearentzat, duela 10 urte berak egin zuenaren ordezkari. Aurrekoa ederra bazen oraingoa ez da gutxiago, Zeraingo armarrria alde batean eta bestean "mendian jaio, mendian hazi herrira etorri eta herriko nagusi" idatzia darama, gorosti makila honek. Zeraingo 79 baserriren izenak daramatzan makila bat ere egin du Nikolasek, 731 letrak osatzen dituzte baserri hauen izenak. Zeraingo Udalarari oparitu dio makila eder hau ere. Nahiz eta Eibarren bizi, Zerain oso gogoan du oraindik Nikolasek



LAKIOLA

Lanak eta Zerbitzuak



Hiribarren 6
20210 LAZKAO

Tel. / Fax: 943 16 12 02
Mobila: 639 406 815

Agenda 21 Zerainen

Historia

Tokiko Agenda 21 iraunkortasunerako plana Rio Janeiron 1992-an egin zen Ingurumen eta garapenari buruzko nazio batuen goi bileran sortu zen.

1994. urtean Danimarkako Aalborg hirian, Europako hiri iraunkorren lehen biltzarrean iraunkortasunera iristeko hiri Europearren gutuna sortu eta sinatu zuten. Aalborg-eko gutuna deituriko idatziaren bidez sinatu zuten herrialdeek, hiri eta herrietan XXI. Mendean, iraunkortasuna lortzeko konpromisoa azaldu zuten.

Beste hainbat biltzarren ondoren, Euskal autonomi erkidegoan ingurumen babeserako 3/98 lege orokorrak, udalerriek iraunkortasunean oinarrituriko estrategiak artesa onartu zuen.

Tokiko Agenda 21ek udalerriaren iraunkortasun osoa bilatu eta bermatzea du helburu. Onetarako udalerriko biztanle eta erakunde guztien parte hartzea bultzatuz ondorengo urteetarako udalerriaren ekintza plana definitu behar da lehenik ondoren martxan jartzeko.

Agenda 21 Zerainen

2003an Goierriko "UDALTALDE 21" lantaldea sortu zen tokiko Agenda 21a lantzeko eskualdeko udalerri guztietan.

2004ko abenduan Goiekik Zeraingo iraunkortasunerako azterketa aurkeztu zigun. Hau izan zen gure udalerriko Agenda 21aren hasiera.

2005 urtean, diagnostikoa eskuan izanik, eta lehen azterketa egin ondoren, herritar guztiei zabaldutako bi bilera egin ziren. Bileren helburuak herritarrei Agenda 21a aurkeztea eta Goiekiren diagnostikotik abiatuta, herriko Agenda 21a garatzen hasteko lantaldeak sortzea zen. Lantalde bakoitzak, herriari buruz eginiko diagnostikoa aztertzeari ekin zion eta era berean, Udalak herriari lotutako pertsonen eta erakundeen diagnostikoa



Zerainen etorkizuneko iraunkortasuna nola bideratu da aztergai

IRAUNKORTASUNA, ZER DA?

Ahoz aho dabilen hitza de iraunkortasuna. Jasangarritasuna, eramangarritasuna etabar erabili izan dira lehen garapen hitzari lotuak, baina Euskaltzaindiak "iraunkortasuna" hitza proposatu zuela denbora pixka bat bada.

Garapenari lotutako iraunkor hitzaren esanahiari buruzko eztabaida ez da nolanahikoa. Orokorrean hitz honekin adierazi nahi dena zera da: geure bizimodua burutu ahal izateko ingurumenean sortzen ditugun kalteak datozen belaunaldien etorkizuna ez du baldintzatu behar. Hau da iraunkortasunaren definizio zabalduena eta politikari eta teknikarien artean onartuena.

Neure iritziz, ordea, jarrera honek zirrikitu ugari uzten dio garapen ez egokiari edo desarrollismo txikitzaileari. "Guk geurea egin eta etorkizunean izango diren aurrerapenekin ingurumena nola babestu asmatuko dute" da espekulatzaile nagusien jarrera eta iraunkortasunaren definizio orokor horretan. Nola ahala bada ere, txertatu daiteke.

Iraunkortasuna hitzak ingurumena bai, baina baita ere gizartea izan behar du helburu. Alferrik dugu kalitate oneko ingurumena, baldin eta etorkizunean geure seme-alabek esklabutzairen pareko kalitateko lanpostuak izango badituzte edo geurea bezalako herri txiki batean bizitza kalitatea aurreratu ezin bada...

Iraunkortasuna neure ustez kontzeptu askoz sinpleago baina era berean zorrotzagoa da: lurralde batek ematen duen etekina lur horretan gelditu behar da. Zerain adibide hartuta: Zerainen sortzen den aberastasuna kanpoto batzuen eskutara joango balitz herriaren etorkizuna, lanpostuen kalitatea, bizitza kalitatea, zerbitzu egokiak, ingurumenaren zaintza etab. kanpotar horieri ez litzaizkieke pitorik ere inportako eta hauek burutzeko beharrezko dirua kanpora doa. Zerainen sortzen den aberastasuna, aldiz, bertan gelditzen bada, zeraindarren artean banatua hauek ondo baino hobeto zainduko dute ingurumena, zerbitzuak, lanpostuak eta abarren kalitatea, azken batean bere bizimodua eta bere ondorengoen etorkizuna baita.

Jakoba Errekondo

zabaldutuen, euren ekarpenak egin zituzten.

Ekarpen guztiak jaso ondoren, herriaren argazki sakon eta egokia lortu genuen, hasierako diagnostikoa aldaketak eginda. Diagnostiko hark zituen gabeziei, herria ondo ezagutzen dutenen ikuspuntu ezberdinekin erantzun zitzaizkien.

Honako lantalde hauek sortu ziren:

1. Ingurune sozio-ekonomikoa, fisikoa, energia, atmosfera, poluituta egon daitezkeen guneak, akustika eta jardura ekonomikoen ingurumen eragina aztertzeke taldea.

2. Lurralde antolamendua eta hirigintza planeamendua aztertzeke lantaldea

3. Natur-guneak aztertzeke lantaldea

4. Mugikortasuna eta garraioak, ura eta hondakinak aztertzeke lantaldea

5. Ingurumen arriskua aztertzeke lantaldea

6. Herri sentibilizazioa eta partaidetza, Udaleko ingurumen antolamendu eta kudeaketa aztertzeke lantaldea

7. Komunikazio taldea

Talde hauetan guztietan, 25

zeraindar inguru ibili dira lanean.

Lanaren prozesua

Aurtengo urte hasieran, lantalde bakoitza bere arloko ekintza-plana definitzen hasi zen. Plan horietan jasotzen da datozen urteetan Zerainen iraunkortasuna bermatu nahi bada, Udalak jarraitu beharreko bidea zein izango den. Guztira 40 ekintza-plan definitu ziren eta bakoitzaren fitxa sortuz, zehaztasun gehiagoraz aztertu ziren. Hau guztia Agenda 21aren lehenengo fasea izan da, hau da diseinuari dagokiona.

Ekintza plan hauek udal batzarrean aho batez onartu eta Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailera bidali ziren.. Iraunkortasunerako euskal sareak onetsi zuen Zerainek arrakastaz gainditu duela lehen fase hau. Eta horrekin batera, Zerainek tokiko iraunkortasuna lortzeke bidean aurrera jarraitzeke konpromisoa berretsi zuen urtarrilaren 25ean, Gasteizen.

Momentu honetan, aurrez landuta zeuden ekintza-planentzat aurrera eramateko diru-laguntzak eskatu ditugu. Lantaldeetatik sortu diren ekintza-plan berrientzat, berriez, proiektuak egiten joan beharko dugu, orain arteko lantaldeetako dinamikarekin jarraituz.

Lantaldeek irekita jarraitzen dute, parte hartu nahi duten guztientzat. Izan ere, iraunkortasuna guztion eskuetan dago. Animatu eta etorri herriaren eta naturaren alde lanera!

Haritz Iztueta


ESKOLAKO AGENDA 21

Agenda 21ean, eskolak ere izan du bere papera. Eskola Agenda 21 proiektuaren bidez, gure eskolako komunitateak Tokiko Agenda 21ean parte hartzen du herriko garapen jasangarriarekin konprometitutako hezkuntza-praktika bultzatuz.

Praktikak hiru ardatz nagusi ditu:

- Eskola-ingurunearen kudeaketa jasangarria.
- Aukeratutako gaia eskolako curriculumean txertatu eta landu ingurumen hurbileko arazoak ezagutzera emanez eta ulertaraziz.
- Azkenik, herriko kudeaketan parte hartu. Zeraingo neska-mutilen ahotsa kontuan hartzeke aukera paregabea eskaintzen digu proiektu honek.

Kontxi Errasti



**GURE ESKERRIK
BEROENA
OA KULTUR
ELKARTEAREN
IZENEAN**

**LIZTORMENDI
ELKARTEARI**

Aratz-Aizkorri parke naturala dela-eta, hainbat kontakizun

Ia urte mordoska bat bada, azken boladan modan dauden Parke Natural edo horietakoren bat Aizkorri inguruan osatu behar zela zabaldu zenetik.

Egia esan, badu inguru honek, begietatik sartzen den hainbat edertasun: larre zabal irekiak; baso ilun eta sakonak; harkaitz muino nagusiak; e.a.. Eta baita ere, hain nabarmen ikusten ez diren hainbat elementu, bere egunean gizakiak orduan bere bizitzarako behar zituen hainbat eraikin, gaur egun gure kultura ondarea osatzen dutenak, historia aurretik hasi eta gaur eguneraino, ingurua bere beharretara egokitu ondoren sortu direnak, hala nola: harripilla, trikuharri, eta mugarri luzeak; artzaintzarekin lotura duten txabola, eskorta, sarobi, e.a.; basogintzari atxikiko litzaizkioken txondar plaza edo pago edo haritz motzak; merkataritza edo gizaki mugimenduek sorturiko galtzadak; burdina lortzeari lotutako meategi, zulo eta labeak; hainbat gauzetako derrigorrez beharrezkoa zen karea egiteko karobiak; errota; e.a..

Zer esanik ez, noski, inguru honek dituen natura balioez. Ze, basoak, larreak, harkaitzetako hegazti gordelekuak, hainbat lekuetan dauden iztinga lekuak, bazterretan sortzen diren putzuak, erreka eta errekatxoak, guzti horiek dira, tokian tokiko landare eta/edo animalia berezien bizi toki, eta horiexek dira hain zuzen ere, etorkizunerako gorde beharreko aberastasunak.

Bestelako konturik da, sarritan gertatzen zaiguna, alegia, inguru miresgarri hauek, mendeetan zehar gizakiak bere erara jarri dituen horiexek, orain gizakirik gabeko inguru bihurtu nahi direla, edo hobeto esanda, bakarrik, inguru hartatik "gozamen espiritual" ateratzen duten gizakiei irekia, basogintza, abeltzaintza, edo betidaniko beste hainbat erabilera baztertuz, edo



Aratz-Aizkorriko paraje ederrak merezi zuen izendapena.

gutxienez ere, zalantzan jarritz.

Parke honen hedadurak Araba eta Gipuzkoako Lurraldeak harrapatzen ditu, eta bere azalerak, guztira 19.400 hektarea ditu. Horietatik, 15.919 hektarea parke gunea dira, eta beste 3.481 hektarea zona periferikoa edo parkearen ingurua osatzen duten eremuak dira.

Azaleraz, parkearen gehiengo nagusia Gipuzkoari dagokio, guztiaren %80 (15.509 hektarea, parkea 12.780 hektarea eta periferikoa 2.729 hektarea) jartzen dituelarik.

Parkeko eremua osatzen lagun




Barbari aldetik zoragarria da Aizkorri

egiten duten lur emariak, berriz, ondorengoak dira: Altzaniako Partzuergoa, Aretxabaleta, Eskoriatza, Legazpi, Leintz Gatzaga, Oñati, Zegama eta Zerain, Gipuzkoatik. Arabatik, berriz, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga eta Zalduondo dira partaideak.

Hauetarik, hiru nagusienak ondorengoak dira: Oñati, 5.336 hektareekin, Altzaniako Partzuergoa 3.154 hektareekin, eta Asparrena 2.513 hektareekin.

Zerainek 148 hektarea jartzen ditu parkean, nagusiki udalaren jabetzakoak diren Herri Onurako mendiak direlarik. Hegoaldean Zegamako Arranoaitz menditik hasi eta mendebalde aldetik Legazpiko udalaren Arrobi mendiarekin muga eginez Larrosainera arteko lur sailak, ipar eta ekialdetik herriko hainbat lur jabeen sailekin muga egiten duelarik.

Lur azaleraz gure partaidetza parkearen barrutian garrantzi handikoa ez izan arren, badu berezitasunik hari ematen diogun aberastasunen aldetik. Ez da ez hauetan garrantzi gutxienekoa, bere egunean, alde batetik herriari aberastasuna eta beste batetik



Zeraingo lurren zati bat ere harrapatzen du parke naturalak.

inguruari kalterik eragin zioen meategi eta honi atxikitako beste eraikuntzak. Bere tamaina batean, gizakiak inguru hura bere onetik aterata jarri bazuen ere, gaur egun, udalaren eta beste bitarteko batzuen (Jaurilaritza, Foru Aldundia, Basoa Fundazioa, e.a.) lanari esker, berriro ere berreskuratu eta jendearentzat hainbat gaietaz eskola bihurtu deguna.

Meategietatik ateratzen diren soberakinek izan ohi dituzten lur hondakin azidoak zerekin jantziko ziren, zan maratilatako bat, eta hura askatze aldera, lekuri kaxkarrenak urkiez landatu ditugu. Bertan, berezkoak diren ametzak mantendu

eta txukundu egin ditugu. Hainbat lekuetan ere, bereziki Gipuzkoarrantzat espeziala den hagina landatu da. Baso lizarrak, hosta zuriak, eta hauen jenero botanikokoak (Sorbus) diren beste hainbat landare espezie desberdinetakoak landatu dira. Guzti hauetaz gozatu ahal izateko handik eta hemendik dauden bideak hobetu ditugu. Meategiak ikusi eta ezagutzeko parada eratu da. Haietan lana nola egiten zen eta ondoren labeetatik zer lortzen zenaren erakustaldi edo azalpenak ere antolatzen dira.

Guzti hori bereziki, baina baita ere beste emari handienekin pare, larre

eremuak eta baso landaketa bikainak dira, beste abar zabal baten artean, Zerainek bere apaltasunean Aratz-Aizkorriko Parkeari ematen diona, natura eta gizakiaren arteko ezinbesteko loturak sortzen dituen baliabideen aberastasuna, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek jakin dezaten, gizakia naturataz baliatu behar dela, hala behar duen heinean, baina aldi berean, neurri gabeko baliatzeak kalteak eragiten dituenaz, hauek ekidin egin behar direla, edo besterik ezean, zer egin behar den ingurua berriro ere, nolakoa zen hartara eraman ahal izateko.

Jose Manuel Oria

ARANBURU HARATEGIA



ZURE ZERBITZURA

Kale Nagusia, 34

Tel.: 943 80 10 14

SEGURA

XaguArtea

2005eko abenduaren 19a

0 alea



Zeraindarron aldizkaria jaio da. Horrelaxe iragarri genuen 2005eko abenduaren 19an XaguArtearen sortzea. Orduz geroztik zortzi ale egin ditugu eta hileko hirugarren astelehenean zeraindar denen etxean egon da aldizkaria, hutsik egin gabe. Orain arte egin denarekin bakarrik ere, gustura egoteko moduan gaude zeraindar guztiok, XaguArtea denona baita.

Lehen ale hartan jarri genuen moduan, XaguArtearen helburua zeraindar denei Zeraingo berri ematea da. Eta horretantxe saiatu gara zortzi hilabete hauetan, jakinik ez genuela beti asmatuko.

XaguArtea herri honetako komunikazio faltari erantzuteko jaio zen. Izan ere, Agenda 21aren

testuinguruan, herriko azterketa egiten hasi eta ikusi zen komunikazio arazoak zeudela herri honetan. Batetik, herritar askok ez zuten jakiten herrian zer pasatzen zen eta zer egiten zen. Eta bestetik, herriko talde ezberdinek ez zuten besteek egindakoaren berririk izaten. Horri erantzun nahian jaio zen XaguArtea, eta zortzi aleren ondoren, uste dugu, neurri batean, asmatu dugula.

Hilabete hauetan guztietan, herriko talde ezberdinei boza ematen saiatu gara, baina horrez gain, interesgarriak izan daitezkeen beste gai batzuk ere landu ditugu. Eta ezin ahatz ditzakegu galtzen ari diren hitzak azaltzeko eta eguraldiaren datuak biltzeko ahaleginak. Horien guztien fruitua zortzi aleok dira, bederatzigarrena bidean da.



GABONAK. Urteroko moduan etxez etxe kantuan eta eskean ibili zen herriko talde bat. XAGUARTEA, 2005-12-19



SAGARDO-DENBORALDIA. Txotxa ireki zen Otatzan eta Oiatzen. XAGUARTEA, 2006-1-16



ZERAIN-MUTILOA BIDEA. Lehen harria jarrita bidea egiten hasi ziren. XAGUARTEA, 2006-2-20



MINETAN LANDAKETAK. XAGUARTEA, 2006-3-20

[illegible]

Tukerik aiki dawa suna laguntuwa da kwarayenki daban daban daga gaskin ahaun, haka lalace gata ga lalace; gaskin kwarayenki suna daga gaskin gaskin ahaun daban daban daga gaskin ahaun.

infektívus Diphtherioides leikétióvok baktériumok miatt, melyek az orrban szaporodnak. Jelenlétét a herpetikus alkanosok a Gortezára és Tachibara hatás után lehet felismerni. Ugyanakkor a Kommissiók előírásnak amint a kórokozó előzetes Nagasakira a herpetikus orrban előzetes előzetes-erővel kimutatására ajánlott.

[illegible]



GOIERRIKO ESKOLA TXIKIEN JAIA. Zerainen ospatu zuten Goierriko eskola txikiek euren eguna. XAGUARTEA, 2006-4-18



AIZKORRI-ARATZ. Parke naturalaren barruan da Zerain. XAGUARTEA, 2006-5-15



GUATEMALATIK ZERAINA. Agirretarrak hemen izan ziren. XAGUARTEA, 2006-7-17



SAN JOAN BEZPERA. Sua errege. XAGUARTEA, 2006-6-19

XaguArtea

200xeko xxxxxxxxxaren xxa

x alea



Bederatzigarren alea bidean da bai, dena ondo badoa, abuztuaren 21ean zeraindarren etxeetan izango da. Baina bederatzigarren aleak ez du esan nahi XaguArtearen etorkizuna bermatuta dagoenik. Bi mila ta x-eko x hilaren hirugarren astelehenean ere XaguArtea gure etxeko buzoian egon dadin asko dago egiteko.

Gauzak martxan jartzea ez da lan erraza izaten, baina martxan jarrai dezaten lortzea, oraindik zailagoa izaten da. Eta momentuz, kalerik egin gabe XaguArtea hilerio etxera heltzen bazaigu ere, litekeena da egunen batean buzoira joan eta gure aldizkaririk ez jasotzea. Batzuk agian ez lukete hutsune handirik somatuko, baina uste

dugu beste batzuk pena hartuko luketela. Horregatik, XaguArtearen etorkizuna berma dezakegu, baina horretarako guztien ahalegina beharrezkoa izango da.

Izan ere, XaguArtea kalera ateratzeko kostoak kubritzeko ez da aparteko arazorik izango Udalak gastuak bere gain hartzen dituen bitartean. Baina aldizkari hau borondateko lanaren fruitu izanik, borondateko lan hori zenbat eta eskasagoa izan, handiagoa izango da XaguArteak kale egiteko aukera.

Horregatik, eta XaguArteak zeraindar guztiena izan nahi duelako, dei egiten diegu herritar guztiei, beldurrik gabe anima daitezen aldizkarian parte hartzera. XaguArtearen etorkizuna, zeraindarren esku dago.

Izana izen eske

A ita Joxemiel Barandiaranek esana izan behar du, baserritarren ahotik jasota, izena duena badela. Alegia, izena duen edozer gauzak izana ere baduela. Luze hitz egin liteke horretaz. Egin ere halaxe egiten da inoiz. Ondorioa, ordea, ez da beti-beti nahi bezain garbia izaten. Badakigu zergatik: korapilo hori behar bezala askatzeko izana zer den, eta zer ez, argitu beharko genuke lehenik. Eta hori, jakina, ez da bat ere lan erraza. Nolanahi ere, hitzaren adiera arruntean ontzat eman liteke goiko esapide hori: izenak, halako neurri batean, izana eransten dio gure gogoeta-lanari. Izenak berekin du izana.

Kontrakoa ere egia ote da? Izenak ere izena berekin ote du, nahi eta nahi ez? Esan al daiteke, lasai-lasai, izan badenak izena ere baduela? Egia ote da, bereziki, gizakiak gauza berri bat sortu edo asmatzen duen bakoitzean izen berri bat ere asmatzen duela, izana izen eske daukalako? Hasierako galdera korapilotsua baldin bazen, oraingo hau ez da askozaz arinagoa. Zein baino zein bihurriago dira, bata eta bestea. Bihurrian antzekoak izanik ere, ez dira ordea maila eta modu berekoak. Antropologiazko jakitea eta ikuspegia eskatzen du lehenengoak. Lexikologiazko argitze-lana eskatzen du, aldiz, bigarrenak. Bigarren ikuspegi honi heldu nahi diogu, hain zuzen, gaurkoan.

Gauza berri bat asmatzen dugunean, izena ere asmatu egiten al dugu izan hori behar bezala? Bai eta ez. Batzuetan sortu egiten dugu izen berria, izanaz bat. Besteetan, gehienetan-edo, ez. Ikus dezagun zenbait adibide, bateko eta besteko.

Berria da, dudarik gabe, telefono mobila. Berrogei urtetik gorakook ez genuen, gure ume-denboran, halakorik ezagutu. Azken hoge urtean zabaldu da tresna hori, erruz zabaldu ere, gure artean. Izana berria du, hortaz, tresna horrek. Eta izena? Asmatu al dugu izenik, euskal izen berririk, izan berriaren pare? Asmatzen saiatu denik ez da gure artean falta izan: esku-telefonoa, eskukoa, sakelakoa, sega-potoa eta beste hainbat. Entzun ere entzuten da, aldian behin, halako izenik. Egia, ordea, badakigu zein den: telefono mobila, edota mobila besterik gabe, nagusitu da gure artean. Horrela esaten dugu gehienok, gehienean. Ez dugu buru-kantsazio handirik egin, horretara iristeko. Erdaraz entzundakoa etxeratu dugu, berriazko apaingarririk gabe. Hots, mailegura jo dugu, erosotasunaren eta, agian, modernotasunaren izenean. Gehienera ere, lekuan lekuko hots-ebakera erantsi diogu mailegu berriari: mobilla, mobille eta abar. Edota, gaztetxoenen artean, mobiya, mobiye.

Hitzak maileguz hartzea ez da inolako nobedade. Maileguzko hitzez beteak daude, bai euskara eta bai Europako hizkuntza gehienak. Arabierazko hitz mordoa du gaztelaniak, frantseseko hainbat hitz alemanak eta, azken urteotan, ingelesezko pila galanta guztiok. Ez uste ordea, horregatik, maileguzko hitzik gabea denik

Mikel Zabide

ingeleza: beste gehienak bezain maileguz betea (batez ere lehenagoko maileguz betea) dago bera, adituen esanean. Euskarak, ondo dakigunez, gaztelaniara jotzen du hegoan, eta frantsesera iparrean, maileguzko hitzen beharrean (edo bere baitarik sortu ezinean) denean. Ez kasualitatez noski: hizkuntza handi-indartsuak eragin bizia izaten du txiki-ahularengan, alor askotan, eta izen berrien kontuan ere bai.

Izen berriak behar direnean ez dago ordea, ezinbestean, mailegutza jo beharrik. Ez da hori, gurean zein besteetan, hitz berriak sortzeko eskueran dagoen bide bakarra. Badira bestelako bideak ere, hizkuntzaren hitz-altzorra izen berriz osatzeko eta eguneratzeko: hor daude hitz-elkarketa, eratorpena, zabalkuntza semantikoa eta neologismoa. Guztiak dira ezagunak, hizkuntza batean zein bestean, eta gurean ere halatsu dira. Gure aurrekoek ez zuten mailegutza jo, erdarazko bandera, teléfono, cámara fotográfica eta radio esateko ikurriña, urrutizkiña, argazki-makina eta irratia sortu zutenean. Horrelakoetan bistan da etxe barruko sorbideetara jo zutela, mailegu hutsetara orde. Batzuetan hitz-elkarteez baliatu ziren: goiko argazki-makina bezalakoa dugu, orobat, caja de ahorros-en ordeko aurrezki-kutxa eta subvención-en pareko diru-laguntza ere. Gaur etxekotuak daude horrelako batzuk, eta maiz asko erabiltzen ditugu, nahiz eta beti-beti ez duten jatorrizko erdal hitzen esparru osoa bereganatu: ikurrina, praktikan, euskaldunon bandera adierazteko espezializatu da: Italiako edo Poloniako bandera esango genuke guztiok, nik uste, eta ez Italiako edo Poloniako ikurrina. Irratiari ere mugatu egin zaio esparrua, ibilian-ibilian. Erabilpen-esparrua bera mugatu zaio, batetik: radiografia edo erradiografia esaten dugu gehienok, ez irratigrafia. Hotsa, berriak eta musika uhin bidez transmititzeko sistemari berari bi izendatze modu ematen dizkiogu, bestetik: batetik maileguzkoa ("itzali mesedez radio hori") eta bestetik geure kabuzkoa ("zuekin Segura irratia"). Kasu batzuetan, azkenik, saioa egin da baina ez du aurrerabide onik izan. Gero eta gutxiago esaten edo idazten da urrutizkina. Aldiz telefonoa jaun eta jabe dabil, guztion ezpain-lumetan.

Goiko adibide horiek ez dira berri-berriak. Ehun urte inguru dute gehienek, eta batzuek gehixeago. Gauza berriak etengabe ari dira ordea sortzen. Gauza dotoreak edo teknikoak batzuek (electrocardiograma, circunvalación, transistor,...), eta ondotoz gai xumeagoak besteak (pantalones vaqueros, pase de modelos, horno de microondas,...). Merkataritzako izen propioak, bereziki, asko ugaritu dira azken mende-erdian: Coca-colarik ez zen orain dela ehun urte, eta Bimborik ere ez. Jamon-de-Yorkik eta Fanta-limonik ere alferrik aipatuko zenion Txirritari, sagardotegian bertsotan ari zelarik. Geroko kontuak dira horiek.

Euskaldunok saiatzen gara, aldian behin, era bateko eta besteko erdal hitz horiei euskal ordaina ematen. Lortu

ere lortzen dugu, zenbaitetan, halakorik egitea. Gaur egun normal samarra da ikastetxeetako zuzendariak, idazkariak eta ikasketa-buruak hitz egitea. Nekez lortuko zenuen halakorik, orain dela berrogei urte: direktor(e)a, sekretari(o)a eta jefe-de-estudiosa zebiltzan orduan hitzetik hortzera. Era berean, eta gorago esan dugunez, ondo errotua dago argazki-makina erdaratiko kamara fotografikoaren parean. Era berean, aurrezki-kutxa ere kaja-ahorrosa bezain indartsu dabil hitzez, eta are indartsuago idatziz. Izen propioekin ere lortu da, hainbatean, euskarazko hitzak zabaltzea: Berritzegunea, Osakidetza eta antzekoak multzo horretan sartzekoak dira. Aurrera egin du horrelakoetan, dudarik gabe, euskaldunon geure baitariko izendatze-bideak.

Joera nagusia ez da ordea hori, kontrakoa baizik. Gizarte-berrikuntzak gauza, prozesu eta kontzeptu berriak dakartza berekin. Erdal hitzez jasotzen ditugu maizenik gauza, prozesu eta kontzeptu horiek, eta mailegu-bideaz baliatzen gara, gehienetan, izanarekin batera izena ere etxeratzeko orduan. Kezka sortu du horrek, aspaldixodanik, euskaltzale jator askoren buruan. "Martxa honetan, nora goaz? Barrutik hustu behar zaigu euskara, ustez uste gabean". Kezka horren eraginez, garbizale bihurtu gara, neurri batean edo bestean, euskaldun asko. Hitz banaka batzuk balira, inor gutxi kezkatuko zen horrekin. Ez dira gutxi batzuk ordea, asko baizik. Atertzeko itxurarik ez duen erauntsia dirudi, euskaldunon eguneroko jarduna aztertzen bada, maileguzko hitzen erabilera mugagabe horrek.

Galdera sortzen zaio berehala, hori dela-eta, espezialistari edo gai hauekin interesatuari: zergatik lortzen da kasu batzuetan euskaraz eratutako hitza aurrera ateratzea (irratia, aurrezki-kutxa,...) eta besteetan (urrutizkiña, mobila esateko sega-potoa,...) zergatik ez? Erantzuna ez da batere argia. Gutxi aztertua dago kontu hori gure artean, eta kanpoan ere ez dabilta askoz aurrerago. Badirudi, oro har, honako hiru faktoreok kontuan hartzekoak direla: ordaineko hitza noiz sortzen den, batetik; hiztunen gogokoa den edo ez den bestetik; hitz hori jendarteratzeko eta hedabideetan maiz erabiltzeko zer-nolako babes instituzionala duen, azkenik. Bigarren faktorea ez da, urrundik ere, hain gauza argia: zergatik da ikurrina jendearen gogoko, eta urrutizkina ez? Galdera horri erantzun nahi dionak alferrik joko du analisi linguistiko hutsera. Analisi soziolinguistikoa gabe, ezer gutxi aurreratu liteke alor horretan. Hirugarren faktorea errazago da entenditzen eta, dudarik gabe, soziolinguistikaren (konkretuki: hizkuntza-plangintzaren) alorrekoa da nagusiki. Gatozen, azkenik, lehenengo faktorerara: denbora kontura. Gauza edo kontzeptua sortu berria (etxeratu berria) denean, errazago da bertako ordaina ematea eta ordain hori jendearen artean hedatzea. Kanpoko izena ikasi eta erabiltzen ohitutakoan, aldiz, zailagoa da bertako ordain sorberria zabaltzea. Momentua garrantzitsua da: erdal forma zabaldu aurretik saiatu behar da, ahal delarik, euskal forma sortzen, zabaltzen eta indartzen. Horregatik izan du Osakidetza, seguru asko, hain zabalkunde handia. Besteetan, aldiz, nahi eta ezinean gelditzen da euskal ordaina. Saihesbidea sortu eta zabaldu

zenerako hor zegoen zirkunbalazioa, eta orain nekez lortzen du erdal formari lurra jatea.

Eta rotondarekin zer? Hori ere fenomeno berria dugu, gure artean. Britainia Handian asmatua omen da borobil-gune hori, hala entzuna dut behintzat, karreteretan semafororik gabe eta segurtasun onez ibili ahal izateko. Geroztik erruz ari da han eta hemen zabaltzen. Ez daukagu begiak urrutira eraman beharrik, rotonda bat zer den jakiteko. N-1etik hasi eta Segurako Madalenaraino bi daude eginak, eta beste bi oraintxe ari dira amaitzen. Zubiberrin omen dator hurrengoa, bosgarrena alegia, oraingo loturak berekin duen arriskua arintzeko. Eta Zerainen bertan, joan den astetik, hor daukagu Antsaputxuko borobil-gune dotorea. Nola esan behar diegu horiei: rotonda, erdara (hau da: gaztelania) hutsari amore emanik? Errotonda, hasieran r duten maileguzko hitzak behinola hartu ohi genituen moduan (Erroma, erreinua, errenditu, erreztatu, erregea, errial bikoa, arrazoia, arropa,...)? Edota euskal forma batez bataiatu behar ditugu? Inor garaiz ibiltzekotan, zeraindar jendea dabil garaiz: astebete baizik ez du bertako borobil-guneak, eta beste bostetatik hiru egin gabe edo estreinatu gabe daude. Inon jende euskaldunik, euskarazko neologismorik edo moldaera berririk erraz entendi dezakeen jendea baldin badago, bestalde, Zerainen eta bere antzeko herrietan dago. Ba al dago hartarako gogorik? Eta gogorik balego, nola bataiatu euskaraz borobil-gune horiek? Hori ere ez baita kontu erraza. Baten gogokoa ez zaio albokoari gustatzen, sarri. Halakoetan, azkenean erdarazkora jotzen da, "hori behintzat guztiok ezagutzen eta onartzen dugulako".

Zein da Zeraingo egoera? Ba al dago gogorik, rotonda ordez euskal izenik erabiltzeko? Egin dezagun proba. Nik neuk, hoberik ezean, eratzunaren alde egingo nuke: Antsaputxuko eratzuna, eratzunean, eratzunetik, eratzunera. Norbaitek esaten badit eratzuna beste zerbait dela, baietz baina ezetz erantzungo diot. Hitzen esanahia aldatuz doa urteen poderioan, euskaraz eta erdarek. Azak garatzen ziren gure artean, hain aspaldi ez dela. Proiektuak eta diseinuak garatzen dituzte orain, lasaitasun ederrean, gure arteko teknikoek. Ba ote liteke aldakuntza handiagorik, mende-herenean?. Hegazkinekin batera hedatu dira, jakina denez, gaztelaniazko azafatak. Azafata hitza zaharra da ordea, ez abioiak sortu ondokoa; "camarera de la reina" esan nahi zuen Erdi Aroan eta gero, tresna eta lanbide berriak (hegazkina eta bertako zerbitzaria) sortu zirenean, eginkizun berrirako indarberritu zen izen zaharra. Ez dago eragozpenik, beraz, eratzun hitzari esanahi berririk eransteko. Besterik ere asma liteke ordea, dudarik gabe. Baina ez da komeni euskal ordain askorekin ibiltzea, batetik, eta aukeratu nahi den forma lehenbailehen aukeratzea komeniko da, bestetik. Horrezaz gainera, aukeratzen den formari zabalkunde ematea izango da zailena: ahoz ahoko hizketan batetik, eta idatzizko jardunean (eskolan,...) eta argitalpenetan (udaleko idazkietan, Saguarten,...) bestetik. Ahozko jardun arrunta da, jakina, eragiten zailena. Baita erabakigarriena ere, ordea, luzera begira.

Merezi al du saioak? Zeraindarrok duzue hitza.

PELLETA, erregai ekologikoa

Petrolioaren eta gas naturalaren prezioak etengabe goraka doazen eta berandu baino lehen denentzako iritsiko ez denaren geroz eta berri gehiago dauden garai honetan, nork ez dio galdetu bere buruari beste erregai mota garbiago eta seguruagorik ezin ote den erabili?

Asko entzuten da ibilgailuentzako hidrogenoa erabiltzen hasi direla proba gisa bederen, eta biodiesela dagoeneko errealitate bat da inguruko gasolindegia batzuetan, Lazkaokoan adibidez. Biodiesel honen zati bat bederen olio begetaletatik ateratzen da, eta beraz lehengai berriztagarri eta naturaletatik.

Baina erregaia ez dugu ibilgailuetan bakarrik erabiltzen. Erregai kantitate handia etxeen berokuntzarako erretzen da. Gaur egun Zerainen ez dago gas naturalik, baina bai propanoa. Gas naturala baino garestiagoa izanagatik, honen antzeko erosotasuna eskaintzen du, eta herriaren zati handi batean zabalduta dago. Baina propanoa petroliotik likuatutako gasa da, hau da, petroliotik dator, honek dakartzan eragozpen guziekin: kutsadura, etengabeko garestitzea, kanpoko erregaiekiko mendekotasuna, noiz arte izango den ez jakitea, etab. Gainera gasa etxe barruan sartzeak segurtasun arriskuak dakartza, leherketa edo toxikapen arriskuak.

Gas naturala iritsi den lekuetan ere arazoa berdina da. Natural izena izan arren, hau ere erregai fosila da, eta petrolioak baino gutxiago kutsatu arren, kutsatu egiten du, eta petrolioak baino lehenago agortuko ote den beldurtzen hasita daude asko, geroz eta jende gehiagok erabiltzen baitu. Gas naturalaren prezioak azken boladan petrolioarenak baino gehiago igo dira.

Bestalde berokuntzarako erregai natural eta ekologikoa betidanik erabili izan da Zerainen eta bazter guzietan. Erregai hau egurra da, eta berriztagarria izateaz gain bere CO₂ isurketa neutroa da, zuhaitzak haztean xurgatutako CO₂a baita, eta

egurrak basoan usteltzen utzita isuriko lukeen berbera. Gainera egurraren sua etxe barruan i k u s t e a k b i z i l e k u a r i a p a r t e k o g o x o t a s u n a ematen dio.

E g u r r a k ordea badu desabantaila bat Ez da batere eroso. Egurra erretzen duten b e r o k u n t z a sistemei (beheko su, estufa nahiz galdarak) eskuz sartu behar zaie egurra, eta nahiko sarri, nahiz eta gaur egun egurra gasifikatuz 24 ordutan egurraren aprobetxamendu ikaragarri ona eta konbustioaren primerako erregulazioa lortzen duten galdarak ba dauden.

Erregai garbi, merke eta berriztagarriarekin batera erosotasuna nahi duenak orain badu beste soluzio bat: Pelleta. Pelleta egurra da, egurrekin eginda dago, baina prozesu mekaniko baten bidez erregai homogeen eta erabat automatizagarria bihurtuta.

Pelleta 6 mm-ko diametroa eta 2 edo 3 cm-ko luzera duen zilindro txiki bat da. Zerrategietako egur soberakinarekin egiten da, %100 egur garbiarekin, inolako produktu kimikorik gabe, eta behin txirbil hau erabat lehortu eta zerrauts fin bat izan arte xehatu ondoren, makina berezi baten bidez 6 mm-ko zilindrotxoetan prentsatzeko da. Oso presio handia ematen zaio, m³-ko 1.100 edo 1.200 kg izateraino, hau da, ez du uretan flotatzen. Hainbesteko dentsitatea lortuz, bolumena asko murrizten da, eta beraz erregaia gordetzeko ez du leku asko behar.

Pelleta makinatik beroa irteten da, eta hoztu egin behar da. Ondoren hautsa kendu eta 15 kg-ko zakutan sartzen da, edo soltean gorde biltegi



Pelleta erregaia pentsu itxura du.

handietan.

Pelleta berokuntzarako erabiltzeko era bat baino gehiago daude. Alde batetik horretarako bereziki egindako beheko su edo estufetan erabili liteke. Hauek barruan depositu bat daukate, eta hau pellet zakutik bete ezker, 15 edo 30 ordutan etengabe piztuta egon liteke, erabiltzen den potentziaren arabera, inolako hautsik bota gabe eta erabat automatikoki. Piztu eta itzali ere automatikoki egiten da, botoi bati emanaz edo urruneko agintearekin, edo nahi den orduan bera bakarrik piztu edo itzaltzeko programatu egin liteke.

Hain erregai homogeen eta xehea izatean, erregaiaren %90etik gora aprobetxatzen du (egurra erretzen duten beheko su tradizionalak egurraren %50 inguru erretzen dute), eta beraz oso erraz gutxi botatzen du, eta tximiniatik kerik irteten ez da ikusten. Tiro behartua duenez tximinia hau oso txikia da, 8 cm-koa, eta edozein lekutara atera liteke (beti kanpora).

Beraz beheko suaren lan berdina egiten du, baina era erosoan, eta oso lan gutxi duenez, askoz sarriago pizten da, berokuntzarako beste erregairen bat dagoen lekuetan hau gutxiago gastatzen lagunduz.

Pelleta erabiltzeko beste era bat galdara da. Galdara hau garajea edo



Estufek txokoak berotzeko balio dute.



Galdaran sortzen da beroa.

beste lokalen batetan jartzen da, pellet depositu batekin (batzuk barruan daukate depositua), eta erabat automatikoki lan egiten dute. Gelan eta kanpoan ze tenperatura dagoen ikusteko sentsoreak dituzte, eta horren arabera kalkulatzeko dute ze tenperaturatan bidali behar duten ur beroa erradiadoreetara edo zoru erradiantera, eta iturrirako ur beroa ere sortzen dute.

Behin programatu ezkerok ez dago galdarari ia begiratu ere egin beharrik. Deposituen tamainaren arabera, urte osoa iraun lezake, errautsak ere urtean behin edo bi aldiz hustea nahikoa da, bakarrik

garbitzen da eta errautsak kaxa batetara ateratzen ditu, eta urteroko ikuskapen tekniko egin ezkerok berak bakarrik lan egiten du. Depositua betetzeko berriz kamioi zisternak daude, automatikoki pelletak deposituan sartzeko.

Agian hemen harrigarriena irudituko zaiguna baina Europa erdialdean eta iparraldean asko egiten dena pelletarekin etxe sail batetarako edo herri osorako galdara bat bakarrik jartzea da. Era honetan etxebizitzetara gasa eraman ordez ur beroa eramaten da. Kontagailu batzuekin etxe bakoitzean gastatzen den energia neurtzen da, eta

berokuntza merkeago irteteaz gain etxeok ez dauka berogailuaren ardurarik eduki beharrik, eta ez dauka etxe barruan erregeia sartzeko dakartzan arriskuen beldurrik izan beharrik.

Bestalde pelletak aplikazio industrialetarako ere erabili liteke, fundizioetarako, berotegiak berotzeko, etab.

Ea denon artean petrolio eta beste erregai fosilen erabilera murriztu eta ingurugiroa hobeto izatea lortzen dugun.

Txirbil Koop. E.



TXIRBIL Koop.E.

**EGUR PELLETA, BEROKUNTZARAKO
BIOMASA SISTEMA AUTOMATIKOAK**

ZERAIN
Tel. 943 800 208
txirbil@txirbil.com

**EGUREZKO LEIHOAK
ETA ISKILARAK**

Kooperatiba eta errekonbertsioa

Joxe Mari Etxaluze

1984an Diario Vascon argitaratuak

Doinua: P.M. Otañoren "Zu Ameriketara joatea"

-1-

Lengoan telebistan
erdi txoraturik
mai inguru bat zuten
ondo osaturik
Gorroño, Larrañaga
eta Aranzadik
itxaropena behintzat
badute oraindik
olako asko bear
lituzke Euskadik.

-2-

Jaun auen jakituriz
ez nintzen arritu
gaur ainbat gogoeta
didate berritu
aurrera ezin degu
nai ainbat korritu
ilunpean askotan
gerade larritu
erakutsi ziguten
nundikan jarraitu.

-3-

Geure lanean sarri
auldu ta aspertu
kanpotik miraritzat
gaituzte aztertu
askotan geuk ez degu
etxean eskertu
iñundik miraririk
etzaigu agertu
lanaren fruitua da
au gogoan artu.

-4-

Askok esaten dute
Europar sartzeko
artu astia lasai
ori aztertzeke
jende askotxo dago
or gu baztertzeke
neuk ez daukat gogorik
an morroi jartzeko
opizio ona da
laster aspertzeko

-5-

Samurrena ez al da
Europar sartzeko
aztertu bear dira
aurre ta atzea
ona al da burua
geitxo makurtzea
ez dezagun espero
bestek jasotzea
ez al da obe lenen
geu sendo jartzeko.

-6-

Gaurkoz bai al daukagu
Europa bearrik
nire ustez ez degu
ortako indarrik
denborik ez dezagun
pasatu alperrik
bestela ez daukagu
luzitu beldurrik
asko ta merkeago
eginaz bakarrik.

-7-

Zoritarrez gaur goibel
da jende geiena
aurrera jarraitzeke
behar da kemena
berrikuntza da emen
bide nabarmena
garaiz artzen ez badeu
teknikaren trena
laster galduko degu
len eindako dena.

-8-

Arrokeriak utzi
eta jarri umil
bat ezin leike emen
orain bizi trankil
krisisan atzaparrak
gogor bezain urbil
emen bi bide daude
berritu edo il
ortik iestu nairik
bat alperrik dabil.

-9-

Bestek asmatzen duna
juan da erosi
gure diru gaixuak
dijuaz iesi
iker lanetan zentzuz
bear gera asi
bestei ez kopiatu
geuk sortzen ikasi
oroitzapenetatik
ez gintezke bizi.

-10-

Lenago ziren aize
ta urez errota
urritu ziren oian
laka eta errentak
aurrerapenak ditu
abantail galantak
sartu elektronikan
ta artu robotak
Eukadi menperatu
Ez dezan porrotak.

-11-

Kinka larrian zaude
Euskadi maitea
jaso bear zaitugu
guztioke batea
gure eskutan dago
zure izatea
gertatutzen bazaigu
oinpera juatea
alperrikan da gero
negar egitea.

-12-

Pasaten ari zera
hamaika naigabe
aspaldin zaudelako
besteren mirabe
iñori limosnarik
or eskatu gabe
geronen nortasuna
biurturik lege
izan gaitezen geure
buruaren jabe.

Gaztetako ibilerak

Joxe Mari Etxaluze

Gu erreka ondoan jaioak izanik uda garaian beti errekan ibiltzen giñen jolasean eta arrantzan. Karramarro eta ezkaluak arrapatzen giñutzen geienbat eta geroxeago piska bat koskortzean aingerak arrapatzen asi ginen, aingera eskuz arrapatzeko oso arrain zailla da likitsa eta ieskorra esku artetik. Baña noizean bein arrapatzen giñutzen ortan ere ikasi egiten baita aingera eskuz eldutakoan azkar erreka baztarrera bota bear da aldan urrutiena eta aldan lekuri urrutiena eta aldan lekuri legorrenera auts artea bada obe edo bestela almitza edo belar latza dagoen tokira, an ez baita errekan bezela baliatzen ies egiteko.

Norbaitek galdetu dezake nolatan zegoen aingera Zeraingo errekan, aingera errekatik itxasora eta berriz errekarra biurtzen dan arraina da salmoiaren antzera baña ori egiteko oztopo aundi bat zeukan bidean, Oria ibaia oso kutsatuta baizegon Zegamako elektro kimika eta papeleraren zikin ixuriaren bidez, Zeraingo errekan azi eta bizi bertan egiten zan aingera.

Non eta nola sortzen zan itxasoan beste guztiak bezela, ¿eta nola etortzen zen Zeraingo errekarra? Trenez eta autobusez, bitxia benetan beste azalpenik gabe uzteko. Gure aitak bazuen arreba bat gure izeba Orion eta gure aita angula zalea izanik, bere arreba eta koñatuak urtero ekartzen zituzten angulak gure etxera, angulak zapi batean pardeltxo bat eginda etortzen ziran eta bizi bizirik etortzen ziran. Baña gure aitak danak etzituen jaten batzuek errekarra guri bota erazten zizkigun



berak etzituen botatzen, zergatik il egiten zitzaizkiolako berak eskuz ukitu ezker, angula tabakoarekin iltzen da eta gure aita erretzaille aundia izanik eskuetan beti tabako kutsua edukiko zuen, angulak errekarra botatzeko presa gaiñen bizi zen Praisku, edo gu izaten giñan angula oiek errekan askatzeko, eta gero arrapatzeko ere geu izate ginan. Praisku au oso gizon artetsua zan berak egin zituen sardeska eta egurrezko tenazak. Gaur Zeraingo museoa harek egindako tenaza eta sardeska daude ikusgai, arekin asko ibiltzen giñan gu arrantzan eta berak asko erakutsi zigun guri. Gauez ibiltzen giñan kandillek karburu argiz artuta.

Beste batean amu arraiñari buruz itzegingo dut.



MANDIO
TABERNA

Herriko plaza
20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 05

Mina inguruko aldaketak

Aizpeako mina aldera aspaldi joan ez bazarete, aldaketa ederra nabarituko duzue hurrena joaten zaretenean. Aizpita etxea berritu zela azaltzen zen iazko urtekarian. Baina, horrez gain, makina bat aldaketa izan dira Aizpita eta mina aldean azken urte honetan.

Lehenagoko sasien eta sastraken arrastorik ez dago orain. Haien lekuan, zuhaitz landara berriak eta terreno garbiak daude. Gainera, hiru labeen paretak eta inguruko beste hormak ere garbitu ziren. Horrekin guztiarekin, Aizpeako minek beste itxura bat hartu dute. Baina aldaketa horiek guztiak zehatzago azaltzea ez dago sobrante.

Zuhaitz berrien landaketak

Iaz desbrozatu ziren lehen lur-eremuak eta ondoren zuhaitz landare batzuk sartu. Baina haiez gain, aurten ingelesan eta alemanen trenbideak eta plano inklinatuak garbitu ditugu. Desbrozearen ondoren, bi eremu horietan hiru ezki klase (erderaz tilo esaten dena) aldatu genituen. Guztira 600 zuhaixka baino gehiago. Landare nahiko handiak izanik, oso ondo itsasi dira lurrera. Ezki hauekin jendeak garai bateko minetako trenbideak non ziren eta zein ziren bereiztea da; bai bertatik pasatzerakoan, eta baita urrutitik begiratzerakoan ere.

Ezki hauetako asko, terreno partikularretan sartu dira. Baina horretarako, aurrez lurjabeekin hitz egin eta adostasunera iritsi dira udala eta parte pribatuak.

Aizpeako mina inguruan ezkiak aldatuta, lehendik aldatutako espezieen aniztasuna ugaritu eta aberastu egin da. Lehendik dauden gereziando, pago, artelatza, arte, hagin, urki, otsalizar, lizar eta abarrei ezkiek ematen duten lasaitasuna gehitu baitzaie.

Ibilbideen eta guneen prestaketa

Meatzal barrutian egin diren beste aldaketa batzuek ibilbideekin dute zerikusia. Lehengo bide zahar batzuk garbitu eta egokitu dira; eta beste bide batzuk zabaldu dira, bide zaharrak elkarrekin lotzeko.

Modu horretan, meatzal barruti guztiari bira emateko aukera ezarri da. Baina bide horiek moldatzearekin ez da amaitzen istorioa.

Izan ere, horren helburua mina inguruetara joaten direnentzat ibilbide tematiko bat egokitzea da. Mendian ibiltzeko aukera emango du ibilbide tematiko horrek eta gainera, naturarekin harreman zuzenean. Baina berezitasuna meategien jarduerak ezagutzeko aukera emango duela da.

Horretarako hainbat puntutan informazio-panelak ezarriko ditugu. Horietan, minetako funtzionamendua nolakoa zen azalduko da, baina baita ere meategietako jarduerekin lotutako beste lanen berri emango da. Horrela, Aizpeako minetako txoko ezberdinak ezagutu ahalko dira.



Meatzal barrutia itxuraldatuta dago.



Informazio panelak jarriko dira aurrerantzean.

Eta hori gutxi balitz, ingurune natural horrek dituen berezitasunen berri ere emango da: landare bereziak, erleak, *akulamendi* edo *arkanbele* deritzen kakalardoak... Beraz, ibilbide tematikoan naturarekin bat eginez ibili ahalko da ingurua ezagutzeko.

Hau guztia egiteko beharrezkoa izan du Udalak hainbat erakunderen laguntza: Basoa Fundazioarena, Kutxa Fundazioarena, Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta Eusko Jaurlaritzarena.

Aizpeako meatzal barrutian aldaketak handiak izan dira beraz. Ingurunea asko txukundu dugu eta oraindik ere asko dago egiteko. Ikusi ez duzenok leku polita duzue bisitatzeko.

Xabi Dorronsoro

Bizirik dagoen elkartrukea

REVEIL PROIEKTUAREN SORRERA

Reveil proiektu europar batean sartu zen Zeraingo Udala. Europako hiru herrialderen arteko proiektu bat zen. Bata geurea zen, noski, bestea Dordogne eta azkena berriz, Greziako herri bat.

Zerainen helburua meategiak errehabilitatzea zen eta horren ondorioa 1999 ko Martxoan elizan egin zen kongresua Zerainen.

ELKARTRUKEA

Reveil proiektu honen amaieran Dordognak Zerainekin beste proiektu batzuekin lanean jarraitzeko interesa erakusten du. Honen fruitu gazteen arteko elkartrukea sortuko da. Dordogneko, Champagnac de Belairko gaztetxoak Zerainera etortzen dira, urtean bi aldiz etortzen dira, eta gu berriz, 2 aldiz joateko aukera eduki dugu. Elkartruke hau gaztetxoaren artean egin da, oso ondo pasatzen dugu eta denon helburua, kultura ezberdinak ezagutzea da, baita ere, dugun ondareaz zerbait gehiago ikastea.

HERRIAN EGINIKO OROITZAPENAK

Tomas Ugartemendia bertan izan zen 2.005eko uztailean. Tomasek, dakizuen bezala harriak oso gogoko ditu eta asko gustatzen zaio harriak lantzea, horren ondorioz haruntza



Jauregiko eguzkian oinarrituta eskultura bat eginda daukate Dordognen.

joan eta bertako gaztetxoei harria lantzen erakutsi zien eta bitartean, Dordogneko gaztetxearen ondoan, bi eguzki irudikatu zituen eskultura batean, bat pozik eta bestea triste. Zeraini eskainitako lan bat da eskultura hau.

Bertakoak ere guri eskerrak emateko beraien gaztetxokoa gure ikurrina, gure argazki eta gure gauzez adornatua dute. Gaztetxe aurrean baita ere, kupel batzuk jarrita dituzte eta bertan marrazki batzuk eginak dituzte eta Zeraini buruzkoak dira denak. Oso pozik jartzen gara hori horrela izatea eta Oso polita da nola tratatzen gaituzten ikustea. Oso harro sentitu beharko ginatke hau ikusita.

EKINTZAK

Dordogneko gaztetxoak oso dibertigarriak dira. Hona ez dira etortzen gurekin dibertitzera bakarrik, bidaiarekin batera gure inguruak eta gure ondarea bisitatzeko asmoz etortzen dira. Guk ere ikasi beharra dugu frantsesa honela ezin da, guk ez dakigu frantsesa baina hala ere hiztegi, zeinu edo beste eraren batera ere hitz egiten dugu. Beraiek, gailegoa batek, beste gehienek frantsesa eta bat bakarra dago gaztelera dakiena eta berari esker hitz egin dezakegu besteekin. Baina hala ere gazte asko daudenez denak batera ez dira etortzen eta horregatik bera



Zeraingo Udala

**GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN
ZERAINGO UDALARI**



Ekainean joandakoan harrera bikaina egin zieten zeraindarrei.

beti ez da etortzen baina hala ere moldatzen gara.

Oso dibertigarria da beraiekin jolastea, asko gustatzen zaigu beraiekin ibiltzea. Pilotan ibiltzen ere ikasten ari dira, nahiz eta ez oso ondo moldatu pixkanaka pixkanaka dena bezala ikastea lortuko dute.

Orain, beraiek ona etortzen direnean iharduera desberdinak

egiten dituzte eta horietako batzuk adieraziko dizkizuegu:

Museoa eta herria bisitatzen dute. Minak eta zerrategian ere parada bat egin izan dute, Goierriko ingurua ere ez da eskasa izan beraientzat, San Adrian eta Donostiara ere bidaia txiki bat ere egiteko denbora ere hartzen dute.

Aurtengo urteko Aste Santuan

hemen izan genituen eta gurekin oso ondo pasatu zutela diote.

Iaz, estrada garbitzera ere etorri ziren. Ez dira bakarrik gurekin ondo pasatzera etortzen, beraiek lan ere egiten dute gure ondarea ezagutzeko asmoz.

Aurten ere udan hemen izango ditugu eta beraiekin asko dibertitzea espero dugu herriko jaietan. Guri ere Dordognera joatea gustatuko litzaiguke eta monitoreak animatzea gustatuko litzaiguke.

Dordogneko gaztetxoak beraien ohiturak dituzte, guk geureak ditugun bezalaxe. Beraien ohituratako bat, egunon, kaixo, arratsaldeon eta saldatzerakoan bi muxu ematea da.

Gu bertara gerturatu izan gara behin edo bi aldiz. Bertan, piraguetan, kanoetan, uretako eskian, eliza ere bisitatu genuen eta herria ere txikia geratu zitzaigun dena ondo ikusia geratu zen. Azken gauean oso afari ona egin genuen beraiekin. Oso ondo pasa genuen. Bertan, gaztetea ere badute eta oso handia gainera.

URRATS BAT GEHIAGO

Beste gauza inportante bat, ahaztu gabe esan beharra dagoena POST DATA telesailari zor diogu. Elixabeti



OSTATU

JATETXEA

20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 99



Pelotan ere nahiko ondo moldatzen dira Frantziako lagunak.

eskerrak eman beharrean ikusi dugu gure burua eta onen bidez eskertu egin nahi diogu, telebistan Dordogne eta Zerainen arteko erreportaia grabatzeagatik. Dordognekoak Aste Santuan hemen zeudela, Meategietako eta Museoetako bisitak burutzerako garaian grabatu ziguten. Zeraingo gaztetxo batzuei eta Dordogneko beste gaztetxo batzuei hitz egiteko aukera eman zieten eta eskerrak eman nahi genioke bere harrera onagatik, mila eske Elixabet.

Herritar batzuek, kartekin ere jarraitzen dute bertako gaztetxoekin kontaktuan. Aurrera begira, Zeraingo gaztetxo guztien partetik oso ondo pasatzen dugula esan nahi dizuegu onen bidez, eskerrak eman nahi dizuegu denoi, eta honela jarrai dezala beste urte askotan. Gu ere saiatuko gara beraiekin harremanak egiten eta handietan akaso oso lagun onak izatea ere lortuko da ez da jakiten zer pasatuko den gerora.

EZ GAZTETXOAK BAKARRIK, HELDUEK ERE HARREMANETAN

Azken urteetan, gaztetxoez gain helduek ere harremanetan jarraitu dugu proiektu honetan. Honen adibide Dordogneko Conseil Generaleko Patrick Pecaud, Mattin



Minak asko gustatu zitzaizkien Dordognekoei.

eta bertako begirale lanetan aritzen diren Stephan, Mariet eta Nico-ren bisitak. Beti beraiek etorri eta gu inoiz ez joan, horrela proiektua aurrera ezin dela atera ikusita aurtengo ekainean Udaletxetik Antonio eta Xabier, eta monitore lanetan ibiltzen diren Oihana, Miren eta Aitziber hiru egunetarako joan da bertan izan ginen. Bertako ondarea, kultura, gazteentzako instalakuntzak etab ikusteko aukera izan genuen eta hurrengo urteetarako beraiek dituzten proiektuen berri izan.

Beraiek Zerainekin harremanetan jarraitu nahi dute eta bi herrialde

hauek bakarrik izan gabe, Britainiako beste proiektu batekin lotzeko asmoa da irailean. Elkartrukeekin jarraitu eta 2.007an Hungariara joan, horixe da beraien helburua.

Aurreko idatziaren ondoren garbi ikusten da Zeraingo gaztetxoak interesatuak daudela harreman honekin, eta gero eta lagun hobeak egiten ari direla. Honexegatik Zerainen indarrak atera eta proiektuak jarraitzeko bere helburu propioak finkatu beharko lituzke. Horietako bat Dordognera beste bidai bat antolatzea gaztetxoentzat.

Paisajea eta jendea

Elixabete Garmendia

Aurreko batean lankide bat galdezka: "Zer? Zeraingo festak pasako ziren honez gero...". Berez despistatu samarra izan, eta gainera aurtengo ekaineko beroak erabat nahastu du. Izan ere, Amabirjiña egun beroan, txakolin dastaketan, ezagutu zituen Zeraingo festak. Horrelakoa izan ohi da Urtekaria iristen den eguna: festa usainean eta berotan. Eta urtean behingoa izanda, pasatakoari errepasoa egiteko trantzean jartzen du bat.

Lehenengo eta behin, orain Urtekaria ez dago bakarrik: hilerok hilerok hor daukagu XaguArteak. Zerainkide modura izugarri eskertzen dut, Mandion eta Ostaturun asteen behin egonaldia eginda ere ez baitira agortzen herriko kontu guztiak. XaguArteak beti topatzen dut ihes egin didan zerbait. Baina gainera gozatzen dut zizkamizka arin hori, eta zer esanik ez sail finkoak. Adibidez, hileroko parte meteorologikoa; egunez eguneko tenperaturen gorabeherak, euririk bota zuen edo ez ikusteak, pasatako egun horiek gogorarazten laguntzen dute, eguraldiaren parteak aurreko hilabetearen laburpena egingo balizu bezala. Eta XaguArteko beste atal batekin erabat fidelizatuta nago: Elena Mendizabalaren zerrendari jarraituz, Mikel Zalbidek galtzeko zorian dauden hitzei buruz idazten duen sail horrekin.

Udazken-negua halakoa izaten da eta amak esan zidan izausiak zeuzkala eskuetan. Zer? Ulertua nion azaleko zartatuez ari zela, baina hitza, izausia lehenengo aldiz entzuten nuen. Gero ahaztu egin zitzaidan, harik eta XaguArtearen zero zenbakian Zalbidek atera zuen arte. Datorren neguan, eskuak zartatzen zaizkidanean, izausiak izango ditut. Euskaltzainaren bermearekin.*

Noan harira. Kontua da XaguArteak, kazetari naizen aldetik, miresturik naukela. Halako diseinu txukun eta funtzionala, argazki polit askoak koloretan, irakurgaiak argi eta zehatz antolatuta eta idatzita... Iruditzen zait edozein kazetaritza eskoletara eramateko modukoa dela,

250 biztanleko komunitate batek nola bere adierazpide duin eta modernoa izan dezakeen erakusteko.

Apirilaren 20ko goiza prexkoa zen, eta urdina aspaldian ez bezalakoa. Dordognako bisitariekin erreportajea egitekotan nintzen. Plazara azaldu zirenean hara non ikusten dudana Harry Potterren antza daukan ilegorri lentedun bat. Iazko festetatik ezagutzen nuen; tonbolan gehien jokatu zuenetakoa, zeramikazko loreontzi haundi bat ere tokatu zitzaion. Ez zidan argitu etxera osorik iritsi ote zen. Kosta zitzaidan mutikoaren izena ulertzea: Erwan. Izen bretoa omen da. Grabazioan aurrera, jarri nion mikroa eta galdetu nolatan etorri zen bigarren aldiz Zeraina, ea horrenbeste gustatzen zaion. Baietz: "le paysage et les gens".

Serioa da Erwan, lotsati antzekoa, baina ez kamutsa, ideiak garbi dituen horietakoa. Hemengo paisajea eta jendea gustatzen zaizkio. Gero Stephanek, monitoreak, argitu zidan nola beraien inguru hartan nahiko isolaturik bizi diren familietan, hemengo tabernetako konturik-eta batere ez. Mandion kontatu zidan hori Stephanek, txakolin bana hartzen genuen bitartean, nik gustura eta hark irrikaz, hemengo bizimoduak sortzen dion inbidia izkutatu gabe. Eta esan zidan nola Dordognako umeei oso ondo datorkien hemengo nortasun kultural sendoa eta gizarte bizitza aberatsa ezagutzea.

*Banenbilen zapatu iluntze batean Ostaturun zorionak partitzen: Luix Aizpeoleari txapelketaren bat irabazia zuelako, Xanti Muñoari semeak ateratako nota onengatik... eta hirugarrenari, Mikel Zalbideri, esku hutsik ez uztearren, esan nion: "Ba zuri ere bai, zorionak, ez dakit zergatik". Hurrengo egunean jakin nuen euskaltzain osotarako hautagai izendatua zutela. Hain merke emandako zorionak, irabazita zeuzkala Zalbidek.



TELLERINE BASERRIA

NEKAZALTURISMOA

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpea Auzoa
Tel. 943 58 20 31
20214 ZERAIN

On Joan Goikoetxea Maiza, S.I. (Don Joan Txiki)

Josetxo Zufiaurre

Mandioan solasean ari ginela, zeraindar ikerlari eta idazle honen aipamen labur bat besterik ez nuen egin eta Elenak, hurrengo urterako idazkitxo hau prestatzeko gaia banuela esanda, berehala heldu zidan hitzetik. Eta bere agindua bete nahian hemen nauzue.

Joan Goikoetxea Maiza, Zeraingo Iruga-rate baserrian jaio zen, 1913. urteko maiatza-ren 8an hain zuzen ere. Bere aita Jose Inazio ere bertan jaiotakoa naiz izan, aitona bertako alabarekin ezkontzera Ataungo Iparragirre baserritik etorritakoa zen, eta honen lau seme, Zerainen jaio baina ezkontzera Ataunera joan ziren. Jose Inazio aitak berriz, bere emazte Maria, Ataungo Lizarburu baserriko alaba hartu zuen. Baserritarra izateaz gainera, aita tratante moduan ere ibiltzen omen zen. Zerbaiten beharra izango zuen, emaztearekin batera, hamar seme alaba mantenduko bazituen.

Joan gatzetxo zelarik, Zeraingo eskolan lehenbiziko ikasketak egin ondoren, bere barreneko deiaren agindua beteaz, Jesusen Lagundiaren Xabierko komentura apaiz gai joan zen Nafarroara. Han urte batzuk ikasten egon ondoren, Loiolara etorri eta bertan harrapatu zuen 1931ko Errepublikaren etorrerak.

Ordurako bere familia osoa, 1928. urtean, Zerain utzi eta Donostiara bizitzera joana zen. Igeldo mendiaren ezkerreko magalean zegoen Loistarain-zar baserrira hain zuzen ere. Antiguoko auzora tokatzen zen baserria.

Errepublikaren aginduz Jesusen Lagundikoak Espainiatik alde egin behar izan zuten, gure zeraindarra beste lagunekin batera Belgikara joan zen. Ondo gogoan dauka oraindik bere arreba Ramonak, beren baserri azpian zihoan Tolosako etorbidean, nola joan ziren hiru autobus bertan bere anaia zelarik.

Bere ikasketak Marneffe, Belgikan, egin ondoren New Yorkera joan zen, eta han egon zen 1942an berriz Espainiara etortzeko baimena lortu arte. Aita eta arreba Ramona Bilboko aireportura joan omen ziren itxoitera.

Ikasketa guztiak burutu ondoren, 1944an Burgosko

Oñan apaiztu zen. Gero Zaragozako Veruelan ere denbora puska baten egon zen. Baina nahiz eta Euskal Herrikan kanpo urtetan egon, euskal kultura oinarritu-tako lanak oso gogozkoak zituen.

Berak idatzitako lanen artean, euskarazkoak naiz erdarazkoak bilatu litezke. Hauen artean, Werner Watson'en "Errialde Guztien Historia" Manuel Lekuonaren ardurapean euskaratu zuen. Bere hainbat lan RSVAParen boletinean eta "Euskera", "Luberri", "Zeruko Argia", "Gure mutillak" "Jesus'en Biotzaren Deia", "Euzko Gogoa", "Egan", eta "Elkartasuna" aldizkarietan irakurri daitezke. Idazti hauek izenpetzekoan izen ezberdinak ere erabili zituen, ala nola "Basarteko apaiza", "Ibon Zerain'go" eta "Iru Garate".


Izengoiti hauek, bere Zerain herriarenganako maitasuna garbi adierazten dizkigute. Ez da harritzekoa bere ilobari Loiolatik 1962. urtean bidalitako postal batean jartzen zion hau: "Zerain erri aundi bat da, ia Donosti aña-koa, ta askoz politagoa; zure amaren erria da". Gaurko Zerain ikusiko balu zer esango ote luke?

Bere ikerketen bidez egindako beste liburu batzuk ere badira, ala nola Aralarko artzainek ardiei jarritako izenak; Loiola inguruko herritan pertsonek elkarri jarritako izengoitiak edo gaitzizenak; Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo, XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkariaren bizitza; eta beste batzuk.

Euskaltzain urgazlea ere izan zen, Euskaltzaindiarentzat lanak egiten zituelarik.

Udaratan, egun batzuk Jesusen Lagundikoak Getarian daukaten etxean igarotzen zituen atsedenean, eta erabat gogo beroturik itzultzen zen bere lanetara. Ataungo bere lehengusuaren Don Joanenea etxean ere egun batzuk igaro ohi zituen.

Bere azkeneko urteak Donostian Deustuko Unibertsitateak daukan Kanpusean eman zituen, 1983. urteko abuztuaren bostean hil arte.



Turismoa Zerainen

Badira urte batzuk Zerain Turismo arloan lanean hasi zela. Urtean zehar bisitari ugari gerturatzen da Zeraina, herria ezagutu, taberna eta jatetxeetan pote bat hartu edo otorduren bat egin, sagardotegietan sagardo pixka bat dastatu, aterpe eta nekazalturismoetan egonaldiren bat egin, etab. Arrazoi ugari dira bisitariak Zeraina etortzeko.

Bisitariei dagokienean gehienak egun bateko txangoan etortzen direla esan behar da.

Hurrengo atal honetan, turismo bulegotik informazio eske pasatzen den bisitariaren inguruko informazioa zuen eskura jartzea erabaki dugu, 2.005eko datuak hartuta. Bertan agertzen diren datuak turismo bulegotik pasatzen diren eta informazioa eskatzen duten pertsonenak dira. Museoa, Zerra, Meategiak, etab-ak ikusi eta Turismo bulegotik igarotzen ez badira, datu hauetan ez dira agertuko.

Turismo bulegora sartzen diren gehienek Zeraingo eta inguruetakoa informazioa eskatzen dute. Gehienak turismo bulegora bertara etorrita erabiltzen dute zerbitzu hau baina telefono, posta elektronikoa eta beste bide batzuk erabiliz ere eskatzen da turismo informazioa. Bisitari gehienak euskaldunak dira, baina gaztelaraz ere askotan ematen da informazioa. Geroz eta informazio gehiago ematen da ingelesez eta frantsesez.



Jende asko hurbiltzen da informazio eske

TURISTEN DATUAK GRAFIKETAN


ADINAREN ARABERA

Turismo Bulegoan informazioa eskatzen dutenak gehienak 27 eta 45 urte bitartekoak dira. Garbi ikusten da familia turismoa dela Zerainen nagusi. Gurasoak haurrekin datozenez honexegatik 27 urtez azpikoen portzentaia ere oso altua da. 46 eta 65 urte artekoen bisitari kopuruari dagokionean estatistikek diotenez azken urteetan gorantz doa eta hurrengo urteetan gorakada izugarria izango du, turismo arloan garrantzia izango dutelarik. Eusko Jaurlaritzaren ustetan 2010 urterako aurre-jubilatutako bisitari hauek hartzeko prestatu behar gara. Bisitari hauek ez dutenez izango arazo ekonomikorik, kalitatezko eta esperientzia duen zerbitzua eskatuko du. Egondaldi motzak izango dira, ez hamabost egunekoak.




HIZKUNTZAREN ARABERA

Zerbitzua ematen den hizkuntzari dagokionean gehienek euskaraz edo gaztelaraz eskatzen dute, nahiz eta geroz eta gehiago diren Ingelesez edo Frantsesez egiten dutenak. % 55ak Euskaraz eskatzen du informazioa eta Gaztelaraz % 43ak.



EUSKAL HERRIKO BISITARIAK ZERAINEN

EUSKAL HERRIKO BISITARIAK ZERAINEN



Grafikoan ikusten den bezala, Zerain bisitatzen duten turista gehienak Euskal Herritik datozen bisitariak dira, eta batez ere Gipuzkoatik. Europa eta Amerikatik geroz eta bisitari gehiago hurbiltzen da. Bisitari gehienak Zerainen bertan jasotzen dira baina telefono, fax, posta eta e-posta bidez ere informazioa bidaltzen da. Eskatutako zerbitzuen artean gehiena bisita gidatuak eta inguruan bisitatzeko ditugun interes turistikoko toki eta ibilbide naturalen inguruko informazioa da. Turismo bulegoan sartutako bisitari gehienek zerbait erosten dute.

Zeraindarrak Herriko Turismo bulegoaz gain Zumaia, Zarautz, Oñati, Tolosako, eta Araban Zuia, Kexana eta Aguraingo turismo bulegoaz baliatu dira informazio turistikoa lortzeko.



Zerain nekazaritzari lotuta bizi izan den herria da. Etorkizunerako proiektua ZERAIN PARKE KULTURALA da.



Zerain Parke

Kulturala

Zeraingo turismo bulegoa
Herriko plaza, z/g.
20214 ZERAIN
Tel. 943 80 15 05
Faxa 943 80 16 06
turismobulegoa@zerain.com

HERRI MUSEOA. Herriko bizimodu eta ohiturak
1711.KO KARTZELA.

LARRAONDOKO ZERRATEGIA. Uraren indarra XIX. Mi
AIZPEAKO MEATEGIAK. Burdinaren ustiapenaren garap-

MANDIOA DENDA. Herriko produktuak eta artisautza
HARIZTIERDI ATERPETXEA.

www.zerain.com

Aldabe eta Aizkorpe bailara

Zazpi urte paseak dira Aldabe sortu zela. Hasera batean Ondasun Elkartek bat bazen ere, ia lau urte dira Kooperatiba Elkartek gisa sortu eta bere helburuak gehitzen hasi zela.

Kooperatiba Elkartek hau Zerain Parke Kulturalaren kudeaketaz gain, Zeraindik kanpo gida lanak egiten hasi zen. Azken urteetan Kutzaren inguruan hirugarren adinekoentzat antolatzen diren txangoetan gida lanak, beste hainbat Turismo bulego eta proiektu turistikoetan laguntza eskaini, etab. egin ditu.

Duela urte bat Zegamako Udalak Egur Museoaren eta bertako Turismo Bulegoaren kudeaketaz arduratzea eskaini zion. Aldabe Kooperatiba Elkartea animatu eta bertan lanean hasi zelarik.

Aurten, Maiatzean hasita, Segurako Ardixarraren kudeaketa hartu du, bertan Ardixarra etxean, Eliza eta kasko historian bisita gidatuak eskainiko dituelarik bertako Turismo Bulegotik.

Honekin Aldabe Kooperatiba Elkartek hiru bazkide langile izatetik (Miren, Oihana eta Aitziber), bere egitura handitu behar izan du. Eta betiko bere laguntzaileez gain egun osorako langile berri bat kontratatu du, Oihana Zubizarreta Zegamarra.

Aizkorpen dauden produktu turistikoak enpresa beraren eskuetan egotea turismo eta bisitaldietarako ona izango dela uste da. Denak bat eginda, bisitari gehiago erakartzea du helburu Aldabe Kooperatiba Elkartek.

Zerain Parke Kulturalako bisitaldiez gain beraz, gaur egun Aldabek hurrengo bisita hauek eskaintzen ditu:

-Egur Museoa - Zegama: Garai batean ospitale gisa erabilitako Anduetza baserrian dago kokatuta. Bertan 173 zuhaitz mota ezberdinen egurra ikus liteke, bakoitzaren erabileraren azalpenarekin batera.

-Ardixarra etxea - Segura: Euskal Herriko Erdi Aroko Herrien sorrera nolakoa izan zen azaltzen da bertan.

Nola sortu eta eraiki zen Segura, nortzuk osatzen zuten, etab. Bertatik Segurako Eliza eta herri kaskoko bisita gidatuak antolatzen dira.

-San Adrian eta Aizkorri Aratz Parke Naturalean bisita gidatuak: San Adrian eta inguruetakoa historia, bertako landaredia, geologia, etab. Bisita ezberdinak burutzeko aukera eskaintzen du Aldabe Koop Elk.-ak. Urtean lau ibilbide ireki antolatzen

asmoa du edonork parte hartzeko eta lehenengoa Uztailaren 23an burutu zen. Ibilbide ireki hauek gain edozein taldek eskatzen badu bisitaldiak burutuko ditugu.

Beraz, eta produktu hauek ezagutzen ez badituzue, denak gonbidatu nahi zaituztegu bisita hauek burutzera.

Aitziber Makazaga



Zegamako egurraren museoa ere Aldabek kudeatzen du.



Ardixarra Gipuzkoako etxerik zaharrena da.

Zerainen historia

Historiako urte luzeetan Zerainek era guzietako gertakizun eta egoerak bizi izan ditu. Gure nondik norakoa jakin dezazun, hemen aurkezten dizugu gure historiaren atalik nagusienak.

HISTORIA➔HASTAPENAK

Herri baino gehiago, familia izan da. Gipuzkoako Jauntxoan artean zer esan handia zuten Zeraingo Jaunen babesean bildutako familia leialez osatzen zen gizataldea.

Zeraindarren lehen erreferentzia idatzia 1384ko martxoak 20ko dokumentu bat da. Juan I erregek eta Enrique IIIak onetsitako idatzi honek, Segura herrira biltzen zituen. Segurako alkateak izango zuen Zerainen agintea.

HISTORIA➔ HERRIA SENDOTZEN

Altzania eta Aizkorriko Partzoneriko lur eta mendiak, 1401 urteko ekainaren 22an erosi zizkieten Fernán Perez de Ayala Gipuzkoako Korregidoreari. Gaur egun ezagutzen dugun Urbiako Partzoneriaren hastapenak ordea, 1440 urtekoak dira; belardi mankomunatuak arautzeko idatzi bat adostu zen.



1615ean, Seguraren menpe 359 urte pasa eta gero, burujabetza lortu zuen Zerainek.

Hitzarmen hau, Gipuzkoako Segura, Idiazabal, Zegama eta Zeraingo ordezkariak eta Arabako Asparrena eta San Millanekoek San Adriango pasalekuan sinatu zuten.

1512 urtean, geroztik herriko bizitza baldintzatu duen gertaera izan zen: Otaratarrek, Fernando Katolikoa erregearen eskutik, Aizpeako meategien ustiapenaren jabetza lortu zuten.

HISTORIA➔ BURUJABETZA

Segurari lotzen zizkien kateak 1615 urtean eten zituzten. 31.364 errealean truke, herri izaera berreskuratu zuten

berriro ere.

Geroztik, elkarte ezberdinetara bildu eta parte hartu zuten zeraindarrek: 1617an San Esteban errekoak bailara elkartearen, 1637an Zegamakoan, 1662-1768 urteetan Legazpiarekin elkarkidetuta egon ziren, 1825an Artamalastegi elkartearen eratu zuten...

Bere izaera propioa mantenduz, ingurukoekin harreman eta elkarlanean, Zeraingo herria apaltasunez eta bere herritarren izerdiz, Euskal Herriko historiaren pasarte baten jabe da.

Laida Aluztiza



ARAKAMA
barne diseinua

Hiribarren, 24 Tel. 943 888 717 - 652 775 955 a.arakama@euskalnet.net
20210 - LAZKAO - Gipuzkoa

Zeraingo gazteak, bagaude eta bagara

Bi orrialdeotako argazkiak ikusita, batek baino gehiagok esango du «gazte hauek parrandarekin baino ez dute pentsatzen» edo antzekoren bat. Eta neurri batean arrazoizkoa da, argazkietan bakarrik erreparatuz gero.

Baina bi orrialdeotan badago izenburu bat ere: *Zeraingo gazteak, bagaude eta bagara*. Itxura batean hitz joko bat besterik ez dirudien arren, nire ustez esanahi handiko izenburua da.

Izan ere, egotetik izatera itzelezko aldea egon ohi da sarritan. Eta kasu honetan ere halaxe dela esango nuke. Zerainen gazteak egon bagaude, baina halaber ez gara egote hutsarekin konformatzen. Gazte garen neurrian, baditugu geure preokupazio, ardura eta eginbeharrak ere. Horregatik uste dut, Zerainen gazteok «egon» ez-ezik, «izan» ere bagarela.

Gure herrian ez dago gazte talde antolaturik. Ez dago gazte asanbladarik eta antzekorik. Baina gazteok elkartzen gara. Adibiderik garbienak, (argazkietan ageri denez) parrandarako antolatzen ditugun aitzakiatxoak dira. Baina aitzakiatxoek badute beste aitzakia bat. Hau da, nire ustez, benetako aitzakia herriko gazteok elkarrekin biltzea da eta horretarako prestatzen ditugu gure juergatxoak.

Norbaitek esan lezake badaezpada ere, parranda aukeratzen dugula biltzeko. Eta ez du arrazoi faltarik. Baina, zenbait bilera egin izan dira herri honetan soziedadeko edo tabernetako mahaian inguruan?

Urtean zehar biltzen garen momentuetan, gure hizketagaiak denetariakoak izaten dira. Zeraingo eskolan ibiltzen gineneko kontuetatik hasi eta Seguran ez dakit zeinek erosi duen etxearen salneurria artekoak.

Bati baino gehiagori entzun izan diot Zeraingo gazte asko utzikierian ibiltzen dela eta ez duela herriaren alde ezer egiten. Ez dut esango guztiz okerra denik. Baina bestalde gogoetarako galdera bat bota nahi



Barrikotean sagardo berria eta gaztainak izan ziren protagonista.



Hernaniko sagardotegiak bisitatu gabe ezin pasa Zeraingo gazteok.

nuke airera: Zeraingo helduetan ere ez ote dago gazteetan bezalako utzikieria herriaren alde lana egiteko garaian? Hau da, proportzioan herriko lanetan parte hartzen duten gazteen portzentaia ez ote da helduena baino altuagoa?

Hori esan ondoren, ordea, uste dut gazteok oraindik gehiago egin dezakegula herriaren, Zerainen, alde. Eta horretarako ardura eta eginkizuna ere baditugu. Baina gure

parrandatxoetan biltzea lehen pausoa bada behintzat. Herriko gazteok batzeko eta elkarrekin harremana mantentzeko balio baitigute.

Gainera, Zerain bezalako herri txiki batean, auzolana edo herriaren aldeko lana ez dut uste adinka antolatuta egin behar denik. Baizik eta benetako aberastasuna, edade ezberdinekoen arteko lankidetzan dago. Eta horregatik, Zerainen etorkizuna adin ezberdinen arteko



Burgomendin, ilbeteen egindako akelarreak denak sorgindu zituen.

lankidetzaz horretan dagoela sinesten dut nik.

Hori esanda, komeni da baita ere, gazte guztiok zaku berean ez garela sartu esatea. «Zenbait buru, hainbat aburu» dio esaera zaharrak, eta Zeraingo gazteon kasuan ere hori betetzen da. Bakoitzak bere erara

ulertzen du Zerain, eta bakoitzak erlazio bat dauka Zerainekin, eta ondorioz, batzuk lan gehiago egiten dute herriaren alde besteek baino. Baina nire ustez, denok osatzen dugu Zerain.

Kontuak kontu, joan den urte honetako barrikote, sagardotegirako

irteera, akelarre, eta festetako afariak ederki joan dira. Datozen urteetan ere horrela jarrai dezagun nahiko nuke. Eta ahal baldin bada, herriaren alde lan gehiago egin. Zeraingo gazteak, bagaude eta bagara.

Ion Muñoa



**MVJIKÀ
JATETXEA**

Liernia • Tfnoa.: 943 80 16 99 • 20214 MUTILOA

Hosto gogorrak

Garai batean hostoak ez ziren erortzen Euskal Herriko basoetan. Hostoak garai haietan ez ziren erortzen oso gogorrak zirelako eta haizea ez zelako oso indartsua. Udazkenean uda azkenaldian berak esaten duen bezala, ez zuen haizeak indartsu jotzen hostoak gogor egoten ziren.

Egun batean, haizeak bilera bat egitea erabaki zuten. Inori ez zitzaion inporta haizea eta orduan bilera egin zuten arratsalde batean ezagunagoak izateko. Horrela hitz egin zuten:

-Ni pasatzean ez naizela pasatu bezala ematen du, gaitera ez gara ikusten. - Esan zuen batek.

-Egia da bai- Esan zuen beste batek. horrela denak hasi ziren esaten: Egia da, arrazoiak duzu, arrazoi guztia duzu, egia da bai...

Eta esan zuen jakintsuenak:

-Isildu! Horrela ez da ezer konponduko. Talde lana egin beharko dugu. Plan bat daukat. Hau da, plana: Denak indarrez jo behar dugu Euskal Herriko punta batetik bestera. Bihar hasiko gara plan hori egiten.- Esan zuen jakintsuenak.

Denak isil isilik joan ziren. Hurrengo egunean esanda bezala Euskal Herria alde batetik bestera egin zuten.

Haizea oso gogorra izan zen eta hostoak pixka bat soltatu egin ziren eta zimeltzen hasi ziren. Horregatik edukitzen dute kolore horixka, marroixka eta gorrixka. Hori udazkenenean egiten dute beti haizeek eta horregatik egoten da hainbeste haize eta ordutik udazkeneko hosto gehienak erortzen dira. Baina zuhaitz batzuei ez zaie erortzen historik ez zituztelako harrapatu. Eta sar dadila kalabazan eta irten dadila Euskal Herriko basoetan.

Andoni Alustiza

Zerain

Lurrindegi, Kosmetika eta Erregaluak

San Inazio kalea, 14 - Tel. 943 88 93 90 - 20200 BEASAIN

Garagarza plaza, 1 - Tel. 943 80 53 27 - 20240 ORDIZIA

San Frantzisko pasealekua, 8 Tel. 943 65 02 39 - 20400 - TOLOSA

Aitona eta amona surfean

Orain dela egun batzuk aitona eta amona surf ikastaro batean apuntatu ziren Benidorren. Goierritik autoz irten ziren surf taula hartuta, autoan egun bat edo beste igaro zuten. Iritsi zirenean maletetan bainu jantziaren bila hasi ziren, han amonarena bakarrik azaltzen zen, aitonaren bainujantzia ez zen ageri eta hango denda zahar batean bilatu zuten pare bat, baina zulatuta, orduan beste denda batera joan ziren eta han, oso bainujantzi modernoa aurkitu zuten. Bakoitzak bere bainujantzia jantzi zuten, eta amonak esan zuen:



-Baina ez dakigu igerian Aitona!

Orduan biek hilabeteko igeri ikastaroa egin zuten eta baita ikasi ere, gainera ondo. Hortik bi egunera surf taula hartu eta itsasora egin zuten salto. Halako batean hango irakaslea bi jubilatuei surfean irakasten hasi zen, eta bai ikasi ere!

Hurrengo egunean biak itsasora sartu ziren surf taula hartuta. Lehenengo amona sartu zen eta hortik minutu batera aitona, baina biek ura oso hotza zegoela esan zuten eta irten egin ziren. Ondoko taberna batera joan ziren eta han zopa beroa hartu zuten. Zopa hartu zutenean, bero-bero jarri ziren eta berriro itsasora sartu ziren.

Halako batean olatu izugarria zetorren itsas barrenetik eta amona ihesi joan zen hondartzara baina olatuak harrapatu egin zuen, baina aitona sasoitsu surf taularen gainean jarri zen eta salbatu. Segituan han zegoen emakume batek GURUTZE GORRIRA deitu zuen. Otsein bezain laister azaldu ziren eta amona oso ondo zegoela esan zuten, susto txiki bat bakarrik izan zela.

Hurrengo goizean etxera abiatu ziren. Etxera iritsi zirenean autoa garajea sartu eta bainu fresko bat hartu ondoren egunerokoa idatzi zuten. Oso pozik sentitu ziren pasatako abenturarekin.

Mikel Oria

Aitona eta amona

Baziren behin Aitona Joxe eta amona Eloisa futbolistak zirenak. Behin elkarren aurka jokatu behar zuten. Eta jakin zutenean bakoitzak bere entrenatzaileari galdetu zion:

-Nik jokatu al dut nesken aurka?-galdetu zion Joxek

-Noski, nola ez ba!

-Noiz da partida?

-Uztailaren 29an.

-Eta entrenamenduak noiz hasiko dira?

-Bihar hasiko dira.

-Nik jokatu al dut mutilen aurka?-galdetu zion Eloisak

-Noski, nola ez ba!

-Noiz da partida?

-Uztailaren 29an.

-Eta entrenamenduak noiz hasiko dira?

-Bihar hasiko dira.

Hurrengo egunean han joan ziren bai Joxe eta bai Eloisa entrenamendura.

Partidaren eguna iritsi zenean biak joan ziren jokatzera bakoitza bere ekipoarekin eta biak kapitainak ziren. Eta 5 eta 1 irabazi zuten mutilek Joxek sartutako 5 golek. Eloisak gol bat bakarra sartu zuen. Baina biak etxera pozik joan ziren golak sartu zituztelako.

Jokin Intxausti



« izal »

IMAZ ETA CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

Tel: 943 18 70 49 – 943 18 70 45


20213 IDIAZABAL

Denborapasak

HIZKI-ZOPA

Ondorengo hitz hauek zuzen idazten badituzu letra-zopan aurkitu ahal izango dituzu:
AXGAUK, JURAEGAI, KATRZLEA, EAMTGAIE, ZAIRRETEGA, TOIKBALOA, LAPZA.

I	L	A	R	B	I	B	Z	I	K	A	S	I	M	O	Z
X	A	G	U	A	K	N	O	W	M	Ñ	O	B	I	T	O
A	I	K	A	R	T	Z	E	L	A	S	L	I	K	A	S
A	N	L	N	I	A	K	A	L	A	U	A	L	T	L	O
L	D	O	E	M	J	T	B	M	I	T	O	I	I	K	A
D	A	N	T	Z	A	P	Z	L	I	M	O	Z	O	R	R
G	O	E	U	S	U	M	A	I	A	S	K	K	A	O	T
R	A	K	A	D	R	I	K	A	R	R	O	U	I	A	E
B	I	O	L	Z	E	R	R	A	T	E	G	I	A	A	R
L	I	T	E	R	G	A	T	D	R	I	A	G	U	R	E
R	I	H	A	U	I	E	K	U	A	I	P	U	K	I	E
I	N	A	M	E	A	T	E	G	I	A	K	D	D	N	A
G	Ñ	A	K	Ñ	I	A	R	F	G	B	K	K	G	O	E



MARRAZKIA

Zenbakiei jarraitzen badiezu marrazki polit bat aterako zaizu.

Ainhua Arzelus

Porrotx Zerainen



Porrotx beti bezala jolaserako prest egon zen.

2006ko apirilaren 3an Porrotx Zerainera etorri zen eta Olaberriko eta Segurako haurrak etorri ziren ikustera.

Guk galderak egin genizkion:

- ZURE IZEN ABIZENAK ZEIN DIRA?

Ni naiz Porrotx, ze esaten duzu, gizonaz jutzen naizenean?, gizonaz mozorrotzen naizenean? Mozorrotzen naizenean Jose Mari Agirretxe Kerejeta naiz

- NON BIZI ZARA?

Ni bizi naiz amona Josefinaren baserrian baina hori Porrotx naizenean, Joxemari Lasarten bizi da pijamaz jantzita dagoenean.

- ZURE FAMILIA ZEIN DA?

Nire familia, Porrotxena? Takolo, Pirritx, amona Joxefina, Joxepa Beila familia bat oso familia daukagu, maitagarria, eta bisitan etortzen dira Kintxo, Romi ijitoa, Anakleto eta gure lagun guztiak, Jose Mari bizi da Donetsekin, Oihane izeneko mutiko bihurri batekin, hamaika urtekoa eta Izar izeneko neska matraka batekin, bederatzi urtekoa.

- PAILAZOA EZ ZERANEAN ZER LAN EGITEN DUZU?

Ni pailazoa ez naizenean "a la patxorra" egoten naiz, pailazo bezala lan asko egiten dut el. Ikusi duzu gaur ze majia handia egin dudan? eta andereñoarekin ze karta jolasa egin dudan?, eta gero dantza egingo dugu e! eta pailazo ez naizenean pailazoa naiz baita ere, zuek bezala, beti pailazo.

- NOIZ HASI ZINEN PORROTX IZATEN?

Porrotx izaten hasi nintzen orain dela urte asko, asko. Nik daramazkit hemeretzi urte. Porrotx jaio zen orain dela hemeretzi urte, baina orain zazpi urte ditut, batzutan bederatzi eta beste batzutan hamalau. Aukeratu egiten dut nire adina, orain dauzkat zuek bezala, lau eta hiru eta bost.

- ZERGATIK GUSTATZEN ZAIZU PAILAZOA IZATEA?

Zuei gustatzen zaizue ondo pasatzea? Eta gustatzen zaizue jolastea? Eta gustatzen zaizue kantatzea? Eta bihurrikeriak egitea? Bai? Guzti horregatik gustatzen zait pailazo izatea.

- ZER MODUZ PASATZEN DUZU PAILAZOA IZATEN?

Ongi, ongi marimondongi, txupi-txupi pasatzen dut, gaur bezala.



Porrotx beti dantzarako ere prest.

- PORROTXEN OINETAKOAK KOMODOAK AL DIRA?

Oso komodoak dira. Begira ezker eskuin, ezker eskuin, pauso eta pauso, orain salto bat bi platano dauzkat barruan, behin platanoa sartu nuen ahoan eta platanoa joan zitzaidan gorputz guztitik eta gelditu zitzaidan zapata barruan, orain dauzkat bi platano zapata barruan eta sagutxo bat.



Arretaz entzun genion Porrotxi esaten zuena, nahiz eta tontokeriak ere esaten zituen.

- NOLA ASMATZEN DITUZU ABESTIAK ETA ISTORIOAK?

Istorioak asmatzen ditugu buruarekin, lehendabizi bihotzarekin sentitu, maitasuna, tristura, beno bihotzarekin sentitu, gero buruarekin pentsatu eta gero eskuekin egin eta idatzi. Adibidez, kanta bat egingo diogu andereñoari: ze txintxoa dan, ze politta, zenbat maite dugun. Gauza horiek jartzen dituzu eta gero errimak egiten dituzu, abestiaren musika eta iasta!

- KINTXO BARRILETE ZURE LAGUNA AL DA?

Bai, behin itsasoa zeharkatu eta Ameriketara joan ginen eta han ezagutu genuen Kintxo Barrilete eta badaude munduan haur pilo-pilo bat ez direnak gu

bezala bizi e! ez daukatenak zapatak, etxeak eta eskolarik eta guk den dena daukagu eta horregatik pentsatu behar dugu zorte handia daukagula. - eta Kintxo Barrilete non bizi zen? Kanean eta gu berarekin egon ginen.

- GUSTORA ETORRI AL ZARA ZERAINA?

Oso gustura etorri naiz Zeraina. Horregatik ekarri dizuet opari bat! Ikusi nahi duzue? Oparia dago hemen e, begira! eskolarako hiru ipuin, CD-a, kartak eta bakoitzarentzako poster bana.

- ESKERRIK ASKO PORROTX.

Maialen, Izar, Irati, Haitz, Oihane



Kaiolan harrapatu gintuen Porrotxek, baina nahiko txintxoa denez, askatu gintuen.

BELARDIAN ASKE HAZITAKOA

- Hazkuntza, 84 egun gutxienez
- Zerealetan oinarritutako elikadura
(Artoa %60, belarra eta beste zereal batzuk)

*Benetakoa,
goxoa, naturala*



Gure baserriak bizirik!

Eraman ezazu etiketa eta garantiaren eraztun zenbakituarekin batera

Zabalegi Aldea z/g 20214 ZERAIN (Gipuzkoa) Tfnoa.: 943 80 01 61 lumagorri@lumagorri.es



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155